

2023-2024 IKASTURTEA

# MEMORIA TXOSTENA

– Lekeitioko Ikastetxeen eskola kirola eta hezkuntza LEK Elkarte –



# AURKIBIDEA

SARRERA.....	3
LEK BATZORDEAK, GIZABALIABIDEAK ETA FUNTZIOAK.....	4-6
LEK PROGRAMAREN ERREPASOA.....	7-22
PARTE HARTZE DATUAK.....	23-25
KOMUNIKAZIOA .....	26
BALANTZE EKONOMIKOA.....	27-28
BALORAZIOAK .....	29-39
24-25 IKASTURTERAKO AURREKONTUA ETA PROPOSAMENAK.....	40-56

## SARRERA

Lekeitioko eskola kirola proiektuak hirugarren urtea bete du ikasturte honetan. LEK programa bere osotasunean landu den lehenengoko ikasturtea izan da aurtengoa; izan ere, LH 4 mailako ikasleak parte hartzen duten lehen aldia izan baita.

Iazko balorazio emaitzek aurtengo lanaren norabidea zein izan behar zuen argi utzi zuten; beraz, antolaketa antzekoarekin jarraitu dugu aurten ere. Zerbait aipatzekotan monitore-hezitzaileek lortu duten heldutasuna eta autonomia maila. Talde bikaina osatu dute!

Umeak, gurasoak eta kirol elkarteak ondo baloratu dute aurtengo programa, koordinazioa eta monitore-hezitzaileen lanak; beraz, badirudi, LEK proiektuak norabide egokia eta merezi duen garrantzia hartzen doala pixkanaka herrian. Halere, herriko ume zein gazteen kirol hastapen eredua eta ibilbidea zehazteko eta adosteko lan asko egiteko daukagu oraindik. Eragile guztien elkarlana eta eskola-adineko kirolean formazioa ezinbesteko bide-lagunak izango dira erronka honetan.

Hurrengo lerroetan, alde batetik, aurtengo LEK programaren memoria laburra aurkituko duzue (partaidetza datuak, diru sarrera eta gastuak...) eta bestetik, 2024-25 ikasturterako helburuak, aurrekontua eta programa.



## BATZORDEAK, GIZABALIABIDEAK ETA FUNTZIOAK

Iaz bezala LEK koordinatzaileak izan du programaren prestaketa, jarraipena eta kudeaketa guztiaren ardura. LEK Elkarteak kontratatutako koordinatzaile horrek astean 15 orduko jarduna izan du (astelehenetik ostiralera, 3 ordu egunean). Urritik maiatzera LEK saioen inguruko prestaketa eta antolaketa lanak egiten ditu; besteak beste, begiraleak lotu, Izayfer Asesoriarekin koordinazioa eraman, begiraleen nominak ordaindu, ikastetxeekin-kiroldegiarekin-kirol elkarteekin-kirol enprekin koordinatu eta gurasoekin komunikazioa eraman. Ekainetik urrira berriz, memoria egiten eta hurrengo denboraldirako dena prestatzen ibiltzen da.

Bestalde, ikastetxe bakoitzak bere LEK ordezkaria izaten du LEK koordinatzaileak behar dituen gauza guztietan esku bat botatzeko eta ikastetxeekin komunikazioa errazteko. Gainera, saio egunetan beste arduradun bat ipini dugu lanean aurten: LEK saioen arduradun figura. Pertsona horren ardura saio baten aurretik dena lotuta eta prest izatea litzateke.

Batzordeei dagokionez, 3 batzorde garrantzitsu egon dira LEK programa ahalik eta egokien kudeatzeko. Hona hemen batzorde horien azalpen laburra:

- 1. Udal LEK batzordea.** Udal ordezkariak, ikastetxeetako LEK koordinatzaileak eta zuzendariak, udal kirol zerbitzuko teknikaria, LEK koordinatzailea nahiz herriko kirol taldeen ordezkariak batzen dituen lan taldea litzateke. Bertan, eskola kirola programaren inguruan jasotzen diren proposamenak aztertu eta erabakiak hartzen dira. Hilean behin batzen da eta bozka ahalmena horrela finkatuta dago: 1 herri eskola, 1 ikastola, 1 kirol klubaren ordezkaria, 1 Bilduko zinegotzia, 1 PNVko zinegotzia.
- 2. LEK programan parte hartzen duten kirol elkarten batzordea.** Kirol taldeen ordezkariak, LEK koordinatzailea eta Udal kirol teknikaria bi hiletik behin batu izan dira. Betebehar garrantzitsuenak LH 3-4 mailakoen eskaintza koordinatzea eta parte hartze irizpideak zehaztea eta betetzen direla jasotzea izan dira.
- 3. LEK koordinazio batzordea.** Udal Kirol Teknikariak eta LEK Koordinatzaileak beharrezkoa ikusten dutenean antolatzen dena; eta, batez ere, beste bi batzordeak prestatzeko erabiltzen da.

Hurrengo tauletan azaltzen dira arduradun bakoitzak aurten izan dituen zereginak:

UDAL KIROL TEKNIKARIA	
LAN ESPARRUA	BETEBEHARRAK
<b>Instalazioak</b>	LEK programarako udal kirol instalazioen koordinazioa lotu.
<b>Hitzaldiak</b>	Hitzaldi eta formazio saioak prestatu eta bideratu.
<b>Batzarrak</b>	Udal LEK arduraduna eta LEK koordinatzailearekin batzarrak antolatu, gidatu eta agiria jaso.
	LEK Udal batzordeen deialdiak egin, agiriak jaso eta bidali.
	LEK-kirol elkarte batzordearen deialdiak egin, agiriak jaso eta banatu.

LEK KOORDINATZAILEA	
LAN ESPARRUA	BETEBEHARRAK
<b>Prestaketa lana</b>	Urteko programa eta egutegia zehaztu eta lotu.
	Kirol enpresekin komunikatu, aurrekontua eskatu eta egutegia lotu.
	Kirol elkarteekin komunikatu eta egutegia lotu.
	Erabiliko diren instalazioak eskatu eta egutegia lotu.
	Monitoreekin kontaktatu, lan-taldea osatu eta beraien lana zehaztu.
	Aldundiko programan inskribatu ikasleak
<b>Koordinazioa</b>	Aste barruko saioen prestaketa, antolaketa eta jarraipena eraman.
	Asteburuko topaketen prestaketa, antolaketa eta jarraipena eraman.
	Eragile guztiekin koordinazioa eraman (monitore, ikastetxeko LEK koordinatzaile, kiroldegi, elkarte, enpresa, ikastetxe).
	Gurasoekin koordinazioa eraman (oharrak, aldaketak, zalantzak, gertaerak).
	Ikastetxeen eta LEK elkartearen kirol materiala kudeatu eta falta denean hornitu.
<b>Komunikazioa</b>	LEK elkartearen web orria lotu, prestatu eta egunean izan.
	Sare sozialetara LEK informazio esanguratsua igo (Facebook, Instagram).
	Whatsapp taldeak elikatu eta koordinatu (gurasoak, monitoreak).
	Argazkiak eta bideoak atera, jaso eta aukeratu.
	LEK elkartearen Drive karpeta prestatu, antolatu, osatu eta egunean izan.
<b>Batzarrak</b>	Guraso batzarrak prestatu, aurkeztu eta bideratu.
	Monitoreekin koordinazio batzarrak prestatu eta bideratu.
	LEK-Kirol elkarte batzarretan parte hartu.
	Udal kirol teknikari eta LEK arduradunarekin batzarretan parte hartu.
	LEK Udal batzordeko batzarrak prestatu eta bideratu.
<b>Balorazioa</b>	Ikasle, monitore, kirol elkarte eta gurasoen balorazioak jaso.
	Balorazioak jasotzeko galdetegiak prestatu eta kudeatu.
	LEK programaren ebaluazioa eta memoria prestatu.
<b>Kontratuak</b>	Izaifer aholkularitza zerbitzuarekin koordinazioa eraman (nominak, altak-bajak).
<b>Soldatak</b>	Monitore eta koordinatzailearen soldaten kudeaketa.
<b>Tesoreria</b>	Diru kontuen jarraipena eraman.
<b>Babesleak</b>	Inguruko enpresen diru laguntzen eskaera lana eta kontaktua eraman
<b>Erosketak</b>	Kirol materiala eta jantzien erosketak baimendu eta jarraipena eraman

IKASTETXEKO LEK ARDURADUNA	
LAN ESPARRUA	BETEBEHARRAK
LEK erreferentea	Ikastetxe LEK erreferentea izan artezkaritza, zuzendaritza, tutore, guraso eta guraso elkartearekin.
	Jarraipen berezia behar duten ikasle eta familien koordinazioan lagundu.
	LEK oharrak eta inprimakiak gurasoei bidaltzen laguntza eman.
	Aldundiko programan ikasleak inskribatzen lagundu.
	Ikastetxe materiala, aldagela-komunak eta instalazioak eskura eta prest izaten lagundu.
	LEK Udal batzordeko batzarretan parte hartu.

LEK MONITORE BURUAK	
LAN ESPARRUA	BETEBEHARRAK
Saioa	Saioaren aurre prestaketa lanak 15:45-16:10 (materiala, espazioak, jarduerak, ikasleak nola jaso...).
	Desplazamenduetan segurtasun neurriak eta jarraibideak betetzen direla ziurtatu.
	Merienda tartearen antolaketa eta jarraipena eraman.
	Arropa eta motxilak aurretik finkatutako lekuetan uzten direla ziurtatu.
	Saioaren egitura ongi betetzen dela zaindu (hasiera unea, ezagutza eraikitze unea, agurraren unea).
	Saioen jardueren denbora eta egokitasuna zaintzeko ardura.
	Saioaren gertaerak bideratzeko ardura ume, guraso eta LEK koordinatzailearekin.
	Saioen gertaera eta asistentzia erregistratu Drive dokumentuan.
	Beste monitoreari argibideak eta laguntza eskaini behar duenean.
	Erabilitako materiala bere lekuan geratzen dela ziurtatu.
<b>Topaketak</b>	Asteburuko topaketetan parte hartu.
<b>Batzarrak</b>	LEK elkarteak proposatutako formazio eta balorazio saioetan parte hartu.
	LEK elkarteak antolatutako hitzaldietan parte hartu.

LEK MONITOREAK	
LAN ESPARRUA	BETEBEHARRAK
Saioa	Saioaren aurre prestaketa lanetan lagundu 16:00-16:10 (materiala, espazioak, jarduerak, ikasleak nola jaso...).
	Desplazamenduetan segurtasun neurriak eta jarraibideak zaintzen lagundu.
	Merienda tartearen antolaketa eta jarraipenean lagundu.
	Arropa eta motxilak bere lekuan uzten dutela ziurtatzeko lanetan lagundu.
	Saioaren egitura ongi betetzen dela zaintzen lagundu (hasiera unea, ezagutza eraikitze unea, agurraren unea).
	Saioen jardueren denbora eta egokitasuna zaintzeko lanetan lagundu.
	Saioaren gertaerak bideratzen lagundu monitore buruari.
	Saioen gertaera eta asistentzia erregistratu Drive dokumentuan sartzen lagundu.
	Erabilitako materiala bere lekuan uzten lagundu.
<b>Topaketak</b>	Asteburuko topaketetan parte hartu.
<b>Batzarrak</b>	LEK elkarteak proposatutako formazio eta balorazio saioetan parte hartu.
	LEK elkarteak antolatutako hitzaldietan parte hartu.

## LEK PROGRAMAREN ERREPASOA

Lekeitioko Eskola Kirola (LEK) lehen hezkuntzako 1-2-3-4 mailetakoko ikasleentzat ikastetxeen, kirol taldeen eta udalaren adostasunarekin eta elkar lanarekin osatutako kirol hastapen proiektua da. Egitasmo honekin, herriko txikienek jarduera fisikoa eta kirol munduan, ikastetxeko eskola-orduetatik kanpo, lehenengo pausuak emateko ustezko modu egokiena, integralena eta hezitzaileena eskaini nahi da.

Adin horietako umeentzat herrian zegoen kirol eskaintza zabala ordenatzeko eta kirol konkretu batean azkarregi ez espezializatzeko helburuarekin jarri zen LEK proiektua martxan. Garai haietan, Kultur ekintzek eta kiroldegiko, ikastetxeetako, kirol enpresen edo klubuen kirol eskaintzek bat egiten zuten egun eta ordutegietan. Guzti honek, besteak beste, umea harrapatzeko elkarten arteko lehia ekarri zuen, ikastetxeen kirol programak bertan behera geratzea eta kirol elkarteetara salto egiteko adina jaiste.



Gauzak horrela, hurrengoko helburuak landu eta lortzeko sortu zen LEK proiektua:

- 6-9 urteko umeen herriko kirol eskaintza ordenatzea, eta kultura eskaintza ere ahal den neurrian.
- Umeen gaitasunak (motorra, kognitiboa, afektiboa eta soziala) modu hezitzaile eta dibertigarrian garatzeko baliabideak jarri.
- Kirol hastapena kirol aniztasunean oinarrituta egotea, kirol eta jarduera fisiko ezberdinak landuz eta bizituz.

- Kirol espezializazio goiztiarra eta lehiaketa txapelketak LH 5 mailara atzeratzea.
- Umeen arteko harreman anitzak eta inklusiboak ematea.
- Kirol baztertzaile eredutik urruntzea generoak, gaitasun mailak, jatorriak edota egoera ekonomikoak parte hartzeko aukera ez mugatzeko.
- Eskola-adina igaro ondoren kirola praktikatzeko ohitura eta gogoia mantentzeko bizipen aberatsekin osatu programa.

Lekeitioko kirol eragile guztiekin osatutako egitasmo honen etorkizuna bermatzeko eta behar duen garrantzia emateko hurrengo aipatzen diren irizpideak jarraitu dira aurten. Hori bai, ikasturte bakoitzean berrikusten eta moldatzen joango dira herriko egoerara egokitzeko:

- 1.** Ikastetxeen ordutegiak bat egin dira, arratsaldeko 16:15etan irtetzeko eta ikasle guztiak aukera berdinak izateko.
- 2.** LEK ordutegia 16:15-17:45 izango da, astelehenetik ostegunera bitartean. Ordutegi horretan LEK programak izango du lehentasuna herriko kirol instalazioetan.
- 3.** Kirol elkarteek LEK programaren ordutegian jarri ahal izango dituzte beraien entrenamendu saioak; hori bai, bat egiten duten egunetan instalazioak partekatu beharko dituzte.
- 4.** LH 1-2 mailakoek astelehen eta asteazkenetan izango dute saioa; LH 3-4 mailakoek, berriz, astearte eta ostegunetan.
- 5.** LEK proiektuan izena ematea ez du derrigortasunik; hala ere, ahalik eta ikasle gehien parte hartu dezaten bultzatuko da.
- 6.** Kiroldegiko igeriketa eta ballet jardueretan izena eman ahalko izango dute LH 1-2-3-4 mailako ikasleek, LEK-n izena emanda izan edo ez.
- 7.** Musika eskolako arduradunekin nolabaiteko oinarrizko paktu bat dago astelehenetik ostegunerako LH 1-2-3-4 mailen ordutegiak zaintzeko; hau da, musika eta LEK proiektua bat ez egiteko.
- 8.** Kirol elkarteetara salto egiteko adin-maila LH 5 jarri da.



9. LEK proiektuan izena ematen duten LH 3-4 mailetako ikasleek aukera izango dute kirol elkarteekin aritzeko; gehienez bi kirol elkarteetan eta egun bat gehienez kiroleko.
10. LEK-n izena ematen dutenek 180€ko urteko kuota ordaindu beharko dute (2 seme/alaba 270€ eta 3 seme/alaba 330€). Ordainketa hori transferentzia bidez eta behin (urrian) edo bi zatitan (urria-otsaila) egin dezakete familiek.
11. LH 3-4 mailetan kirol elkarteetan parte hartu nahi dituztenek 40€ ko urteko kuota ordaindu beharko dituzte kiroleko (transferentzia bidez urrian). Kuota hori LEK Elkarteak jasoko du eta gero klubei bideratu.
12. LEK saioetan erabiltzen den kirol materiala ikastetxeetako da. LEK Elkarteak erosten duen materiala ikastetxeetan bertan gordeko da, eta bertakoek erabili ahal izango dute (gorputz hezkuntza saioetan, jolas orduetan).
13. LEK programan parte hartzen duten kirol elkarteek diru laguntza bat jasoko dute. Dagoen diru partidaren arabera puntu bakoitzeko diru kantitate bat jasoko dute (aurten puntu batek 10,50€). Ordainketak Udal Kirol Teknikariak bideratuko ditu. Aurtengo irizpideak taula honetan zehazten dira:

 <b>DIRU LAGUNTZEN IRIZPIDEAK 2023-2024</b>		
Kirol elkarteak LEK programan		
ASTEBURUKO TOPAKETAK	Topaketa aurrera eramaten laguntza eman A. Monitore laguntzaileak utzi B. Material arina utzi	3 puntu topaketako
	Topaketa prestatu eta aurrera eraman A. Materiala utzi, monitoreak jarri. B. Topaketa prestatu eta LEK koordinatzailearekin lotu	10 puntu topaketako
LEK SAIOAK LH 4	Saioak prestatu eta aurrera eraman A. Saioak prestatu eta LEK koordina. adostu B. Monitoreak eta materiala jarri	1,5 puntu saioko
	Saioetan laguntza eman A. Material arina utzi B. Monitore laguntzaileak ekarri	0,5 puntu saioko
LEK SAIOAK LH 1-2-3	Saioak prestatu eta aurrera eraman A. Saioak prestatu eta LEK koordina. adostu B. Monitoreak eta materiala jarri	1,5 puntu saioko
	Saioetan laguntza eman A. Material arina utzi B. Monitore laguntzaileak ekarri	0,5 puntu saioko
	Saioetarako material garestia utzi A. Material garesti eta berezia erabiltzen utzi	1 puntu saioko
KIROL ELKARTE ESKAINTZA LH 3-4	Astean saio bat egiteko aukera eman A. Saioak LEK koordinatzailearekin kontrastatu B. 1 monitore jarri	20 puntu
	Astean saio bat egiteko aukera eman A. Saioak LEK koordinatzailearekin kontrastatu B. 2 monitore jarri	40 puntu
	Astean saio bat egiteko aukera eman A. Saioak LEK koordinatzailearekin kontrastatu B. 3 monitore jarri	60 puntu
	Topaketa prestatu eta aurrera eraman A. LEK koordinatzailearekin kontrastatu B. LEK egutegia eta irizpideak zaindu	10 puntu topaketako

14. Asteburuko LEK topaketak igande goizetan egingo dira bereziki, Aldundiko atletismo eta hondartza-boleibola izan ezik (zapatu goizetan izaten dira). Hori gertatzen denean, Etorkizuna Dantza Taldekoek abisatu beharko dira aldezaurretik (zapatu goizetan saioa izaten dutelako).
15. Asteburuko topaketetan parte hartzea ez da derrigorrezkoa; hori bai, ahalik eta parte hartze handiena bilatzen da.



Saioen antolaketa eta egiturari dagokionez, gurasoen eta begiraleen balorazioetan oinarrituta, iazko ordutegia, programa erdua eta saio estruktura mantendu ditugu aurten ere:

- Ordutegia hurrengoa izan da: **16:15** ikasleak jaso gelan, **16:15-16:25** merienda tartea, **16:25-16:40** saio izango den tokira ibilbidea, **16:40-17:45** saioa, **17:45** gurasoak jaso.
- Kirol jarduera bakoitza bi astetan eta lau saioetan lantzen jarraitu dugu, jarduera bera lantzeko denbora eta progresio egokia zaintzeko. LH 4 mailakoekin 7 saio izan dute kirol bakoitzeko (kirol elkarteekin horrela erabaki delako).

- Ia saio gehienak aurretik prestatuta eta idatzita egoten dira. Saioetan hasierako unea, ezagutza eraikitzeko unea eta agurraren unea bereizten jarraitu dugu.



### SAIOA

#### Patinak 2

#### HELBURUAK

1. Onarriko abilezia, babes neurriak eta joko egoerak ezagutu eta praktikatu dugu.

#### SAIOAREN DESKRIBAPENA

1. Begirale bat herri eskolako ikasleak hartu eta ikastolara eramango ditu. Beste begiralea ikastolako ikasleekin egongo da.
2. Ikastolako frontoia eta putzua egingo dugu saioa (batzuek ere frontoian).
3. Materiala karreroan aterako dugu. Karro bat babesekin, beste bat ikasleekin eta beste bat patinekin.
4. Hirugarren begirale bat jarriko dugu, ez dabilenei laguntza emateko.

#### MATERIALA

Patinak, kaskoak, babesak, konoak, kutsiak, pilotak, baldak

#### SAIOA HASI AURREKO TARTERAKO ARGIBIDEAK

1. 16:30etan ikastetxe bakoitzeko goietara igoko gara ikasleek biltze. Tutoriek edo une horretan dauden irakasleekin partekatuz aurrerantze zementu eta errepasatze gaitzak dauzkan. Ikasleek bat jaitza bada eta inork ez lagaitza ezan osan koordinatzaileari abisua eman behar da.
2. 16:35etan goietara jaitza ikasleak eta ikastetxe bakoitzaren hasiera gunea eraman. Herri eskolan frontoia gunea eta ikastolako frontoia gunea (beti leku berdinean geratu umeekin). Bertan jarriko dugu merienda sartzeko kutxa bat eta gurusoek bertara ekarri ahal izango dituzte seme alaben merienda gaitzak.
3. 16:35-16:35 merienda jateko eta LEK saio gunea jateko ibilbide tartea. Ondu antolatze behar gara denboraz helteko LEK saio gunea. Eman sinatze merienda ateratzeko eta jaten hasteko. Ikasleek urduri jarri gabe, laguntza eman, beraien hitz egin. Gogoratu beraien artean tartea bat dela (ikasleak irten eta LEK saioa). Bilkutzea egin behar duten ikasleak, uneoro, koetxeraren izan, ibilbideko arazak zaindu eta merienda jaten behar du.
4. 16:30-16:35 ikasleek motzak, arropak eta kargetak erabiltzeko gunean sartuko tartea. Herri eskolan frontoian, ikastolako 1-2 aldagelatan edo frontoian, kiroldegian frontoiko edo publikoiko gradetan, futbol zelaian arrietan eta atletismo pistan aldagelatan edo pistako gune baten.

### HASIERA UNEA

20 min

- a) Ikasleak gradetan eseriko dira babesak eta patinak ipintzeko.
  - Ongi etorria eman ikasleei.
  - Ikasle bakoitzari banatu materiala eta lagundu ipintzen. Jantziak daudenenak borobilerak bideratu.
- b) Ikasleak borobilerak pasa babesak jantziak daudenean.
  - Errepasatu LEK saioan zehar zaindu behar diren jarraitzaileak: Komuneko tartea zaindu (borobileran jarri aurretik edo jolas batetik bestera baino beti baimena eskatuz, elkarbitzeta arauak, ezin dute saio utzi eta alde egin, urduri-haserre-beldur garenen kasu gunea erabili dezakegula (erabaki gune bat) edo begirale laguntzaile izan ahal direla aipatu ere.
  - Bukatzeko, gauro saioan egingo dugunaren laburpena bat egin. Patin saioetan seurtasun neurriak zaindu beharko dituzte azaldu ere.

### EZAGUTZA ERAIKITZEKO UNEA

40 min

1. **IRAKASLE PATINEN AURRITZAK** 40min.
  - Frontoian bueltak ematen norabide aldatetako egin, makurtzen, salto egin, hanka bat gora...



- Taldekatu 1-2-3 multzoetan irteera emateko. Lurreko soka dagoen lekura gaitinatu eta soka ukitu aurretik ahal den modura frenatu: hurrera bota, freno erabili...



- Talde bordinak mantentuz, oraingo honetan soka gainetik pasatu behar dute ikasleek erori gabe, pasua eman estioan.



### EZAGUTZA ERAIKITZEKO UNEA

40 min

### AGURRAREN UNEA

5-10 min

#### 2. **IRAKASLE PATINEN AURRITZAK** 40min.

- Kutxak jarri lurrean eta kutxekin aniketa ezberdinak: 1. Kutxetan eseri binaka edo bakarka, 2. Kutxak eskuetan ukitu erdi makurtuta, 3. Sigi-saga kutxari, 4. Buelta osoa eman kutxari.



- Taldeka pilota jaso jolasa. Ikasleak 4 taldetan ipini eta talde bakoitzeko kideak lurrean dauden pilotak jaso eta beraien baldera eraman beharko dute bana-bana.



- a) Gradetan eserita bukatuko dugu.
  - Babesak kentzen eta material gutxi batzen lagundu ikasleei.
  - Ondu pasatu duten galdetako ikasleei.
  - Gertaeren bat komentatu nahi duenari tartea eskaini.
  - Hurrengo saioaren inguruan alpainema egin.
- b) Aldagelara edo hasiera txokora lagundu ikasleei.
  - Beraien gauza gutxiak hartu dituztela ziurtatu.
  - Gurusoak zain dauden gunea eraman eta ziurtatu familiarren bat dagoela.

- Herriko zein inguru hurbileko kirol eta aisialdi enpresak ere programan parte hartzeko ahalegina egin dugu aurten ere (zirkoa, eskalada, piragua...).
- Umeek ahalik eta esperientzia motore gehienak garatzeko programa bi etapatan banatzen da, bakoitza bere eduki eta helburuekin:

❖ **LH 1-2 etapa.** Jarduera fisiko eta jolasen bidez, umearen garapen motorean, kognitiboan, afektiboan eta sozialean eragin positiboa bilatzea eta hauek lantzea.

❖ **LH 3-4 etapa.** Garapen motorean eta afektiboan eragin positiboa bilatzeaz gain, kirol hastapenera eta herriko kirol eskaintzara sarrera egokia bermatzea.

# LEK PROGRAMA 2023-2024

## LH 1 maila

1. Lau-hilabetea			LH 1A taldea		LH 1B taldea	
			Monitoreak: Asier-Katalin		Monitoreak: Xabier-Lur	
			Jarduera	Non jaso	Jarduera	Non jaso
URRRIA	1. Astea	2	Skate	Ikastolan	Oinarrizko gait.	Larrotegin
		4	Skate	Ikastolan	Oinarrizko gait.	Larrotegin
	2. Astea	9	Skate	Ikastolan	Oinarrizko gait.	Larrotegin
		11	Skate	Ikastolan	Oinarrizko gait.	Larrotegin
	3. Astea	16	Oinarrizko gait.	Larrotegin	Skate	Ikastolan
		18	Oinarrizko gait.	Larrotegin	Skate	Ikastolan
	4. Astea	23	Oinarrizko gait.	Larrotegin	Skate	Ikastolan
		25	Oinarrizko gait.	Larrotegin	Skate	Ikastolan
AZAROA	1. Astea	Urri 30	Herri-kirolak	Ikastolan	Baloi-jolasak	Kiroldegian
		1	Jai eguna		Jai eguna	
	2. Astea	6	Herri-kirolak	Ikastolan	Baloi-jolasak	Kiroldegian
		8	Herri-kirolak	Ikastolan	Baloi-jolasak	Kiroldegian
	3. Astea	13	Baloi-jolasak	Kiroldegian	Herri-kirolak	Herri Eskolan
		15	Baloi-jolasak	Kiroldegian	Herri-kirolak	Herri Eskolan
	4. astea	20	Baloi-jolasak	Kiroldegian	Herri-kirolak	Herri Eskolan
		22	Baloi-jolasak	Kiroldegian	Herri-kirolak	Herri Eskolan
5. Astea	27	Jai eguna		Jai eguna		
	29	Mahai-jolasak	Ikastolan	Mahai-jolasak	Ikastolan	
ABENDUA	1. Astea	4	Mahai-jolasak	Ikastolan	Mahai-jolasak	Ikastolan
		6	Jai eguna		Jai eguna	
	2. Astea	11	Psikomotrizitatea	Herri Eskolan	Bio-dantza	Ikastolan
		13	Psikomotrizitatea	Herri Eskolan	Bio-dantza	Ikastolan
	3. Astea	18	Psikomotrizitatea	Herri Eskolan	Bio-dantza	Ikastolan
20		Psikomotrizitatea	Herri Eskolan	Bio-dantza	Ikastolan	
URTARRILA	1. Astea	8	Bio-dantza	Ikastolan	Psikomotrizitatea	Herri Eskolan
		10	Bio-dantza	Ikastolan	Psikomotrizitatea	Herri Eskolan
	2. Astea	15	Bio-dantza	Ikastolan	Psikomotrizitatea	Herri Eskolan
		17	Bio-dantza	Ikastolan	Psikomotrizitatea	Herri Eskolan
	3. Astea	22	Pilota-jolasak	Kiroldegian	Gorputz-adierazpena	Ikastolan
		24	Pilota-jolasak	Kiroldegian	Gorputz-adierazpena	Ikastolan
	4. Astea	29	Pilota-jolasak	Kiroldegian	Gorputz-adierazpena	Ikastolan
31		Pilota-jolasak	Kiroldegian	Gorputz-adierazpena	Ikastolan	

# LEK PROGRAMA 2023-2024

## LH 1 maila

2. Lau-hilabetea			LH 1A taldea		LH 1B taldea	
			Monitoreak: Asier-Katalin		Monitoreak: Xabier-Lur	
			Jarduera	Non jaso	Jarduera	Non jaso
OTSAILA	1.Astea	5	Gorputz-adierazpena	Ikastolan	Pilota-jolasak	Kiroldegian
		7	Gorputz-adierazpena	Ikastolan	Pilota-jolasak	Kiroldegian
	2.Astea	12	Gorputz-adierazpena	Ikastolan	Pilota-jolasak	Kiroldegian
		14	Jai eguna		Jai eguna	
	3.Astea	19	Igeriketa	Trinketen	Elkarlan jolasak	Ikastolan
		21	Igeriketa	Trinketen	Elkarlan jolasak	Ikastolan
	4.Astea	26	Igeriketa	Trinketen	Elkarlan jolasak	Ikastolan
		28	Igeriketa	Trinketen	Elkarlan jolasak	Ikastolan
MARTXOA	1.Astea	4	Elkarlan jolasak	Ikastolan	Igeriketa	Trinketen
		6	Elkarlan jolasak	Ikastolan	Igeriketa	Trinketen
	2.Astea	11	Elkarlan jolasak	Ikastolan	Igeriketa	Trinketen
		13	Elkarlan jolasak	Ikastolan	Igeriketa	Trinketen
	3.Astea	18	Bizikleta	Herri Eskolan	Bertoko jolasak	Ikastolan
		20	Bizikleta	Herri Eskolan	Bertoko jolasak	Ikastolan
APIRILA	1.Astea	8	Bizikleta	Herri Eskolan	Bertoko jolasak	Ikastolan
		10	Bizikleta	Herri Eskolan	Bertoko jolasak	Ikastolan
	2.Astea	15	Bertoko jolasak	Ikastolan	Bizikleta	Herri Eskolan
		17	Bertoko jolasak	Ikastolan	Bizikleta	Herri Eskolan
	3.Astea	22	Bertoko jolasak	Ikastolan	Bizikleta	Herri Eskolan
		24	Bertoko jolasak	Ikastolan	Bizikleta	Herri Eskolan
MAIATZA	1.Astea	Api 29	Mahai jolasak	Ikastolan	Mahai jolasak	Ikastolan
		1	Jai eguna		Jai eguna	
	2.Astea	6	Arrauna	Plazan	Naturan jolasak	Plazan
		8	Arrauna	Plazan	Naturan jolasak	Plazan
	3.Astea	13	Arrauna	Plazan	Naturan jolasak	Plazan
		15	Arrauna	Plazan	Naturan jolasak	Plazan
	4.astea	20	Naturan jolasak	Plazan	Arrauna	Plazan
		22	Naturan jolasak	Plazan	Arrauna	Plazan
	5.Astea	27	Naturan jolasak	Plazan	Arrauna	Plazan
		29	Naturan jolasak	Plazan	Arrauna	Plazan

# LEK PROGRAMA 2023-2024

## LH 2 maila

1. Lau-hilabetea			LH 2 taldea	
			Monitoreak: Unai-Paul	
			Jarduera	Non jaso
URRRIA	1.Astea	2	Mundu-jolasak	Herri Eskolan
		4	Mundu-jolasak	Herri Eskolan
	2.Astea	9	Mundu-jolasak	Herri Eskolan
		11	Mundu-jolasak	Herri Eskolan
	3.Astea	16	Eskalada/hanka-paluak	Ikastolan
		18	Eskalada/hanka-paluak	Ikastolan
	4.Astea	23	Eskalada/hanka-paluak	Ikastolan
		25	Eskalada/hanka-paluak	Ikastolan
AZAROA	1.Astea	Urri 30	Oinarrizko gaitasunak	Larrotegin
		1	<b>Jai eguna</b>	
	2.Astea	6	Oinarrizko gaitasunak	Larrotegin
		8	Oinarrizko gaitasunak	Larrotegin
	3.Astea	13	Patinak	Ikastolan
		15	Patinak	Ikastolan
	4.astea	20	Patinak	Ikastolan
		22	Patinak	Ikastolan
	5.Astea	27	<b>Jai eguna</b>	
		29	Xake	Herri Eskolan
ABENDUA	1.Astea	4	Xake	Herri Eskolan
		6	<b>Jai eguna</b>	
	2.Astea	11	Elkarlan talde-jolasak	Ikastolan
		13	Elkarlan talde-jolasak	Ikastolan
	3.Astea	18	Elkarlan talde-jolasak	Ikastolan
		20	Elkarlan talde-jolasak	Ikastolan
URTARRILA	1.Astea	8	Igeriketa	Trinketen
		10	Igeriketa	Trinketen
	2.Astea	15	Igeriketa	Trinketen
		17	Igeriketa	Trinketen
	3. Astea	22	Euskal-dantzak	Herri Eskolan
		24	Euskal-dantzak	Herri Eskolan
	4.Astea	29	Euskal-dantzak	Herri Eskolan
		31	Euskal-dantzak	Herri Eskolan

# LEK PROGRAMA 2023-2024

## LH 2 maila

2. Lau-hilabetea			LH 2B taldea	
			Monitoreak: Unai-Paul	
			Jarduera	Non jaso
OTSAILA	1.Astea	5	Baloi-jolasak	Kiroldegian
		7	Baloi-jolasak	Kiroldegian
	2.Astea	12	Baloi-jolasak	Kiroldegian
		14	Jai eguna	
	3.Astea	19	Akrobaziak	Ikastolan
		21	Akrobaziak	Ikastolan
	4.Astea	26	Akrobaziak	Ikastolan
		28	Akrobaziak	Ikastolan
MARTXOA	1.Astea	4	Gorputz-adierazpena	Herri Eskolan
		6	Gorputz-adierazpena	Herri Eskolan
	2.Astea	11	Gorputz-adierazpena	Herri Eskolan
		13	Gorputz-adierazpena	Herri Eskolan
	3.Astea	18	Pilota-jolasak	Kiroldegian
		20	Pilota-jolasak	Kiroldegian
APIRILA	1.Astea	8	Pilota-jolasak	Kiroldegian
		10	Pilota-jolasak	Kiroldegian
	2.Astea	15	Arrauna	Plazan
		17	Arrauna	Plazan
	3.Astea	22	Arrauna	Plazan
		24	Arrauna	Plazan
MAIATZA	1.Astea	Api 29	Xake	Herri Eskolan
		1	Jai eguna	
	2.Astea	6	Naturan jolasak	Plazan
		8	Naturan jolasak	Plazan
	3.Astea	13	Naturan jolasak	Plazan
		15	Naturan jolasak	Plazan
	4.astea	20	Bizikleta	Herri Eskolan
		22	Bizikleta	Herri Eskolan
		27	Bizikleta	Herri Eskolan
		29	Bizikleta	Herri Eskolan

# LEK PROGRAMA 2023-2024

## LH 3 maila

1. Lau-hilabetea			LH 3A taldea		LH 3B taldea	
			Monitoreak: Asier-Zenabua		Monitoreak: Unai-Olatz	
			Jarduera	Non jaso	Jarduera	Non jaso
URRRIA	1.Astea	3	Soka-salto	Ikastolan	Saskibaloia	Herri Eskolan
		5	Soka-salto	Ikastolan	Saskibaloia	Herri Eskolan
	2.Astea	10	Soka-salto	Ikastolan	Saskibaloia	Herri Eskolan
		12	Jai eguna		Jai eguna	
	3.Astea	17	Saskibaloia	Herri Eskolan	Soka-salto	Ikastolan
		19	Saskibaloia	Herri Eskolan	Soka-salto	Ikastolan
	4.Astea	24	Saskibaloia	Herri Eskolan	Soka-salto	Ikastolan
		26	Saskibaloia	Herri Eskolan	Soka-salto	Ikastolan
AZAROA	1.Astea	Urri 31	Zirkoa	Ikastola	Euskal-pilota	Kiroldegian
		2	Zirkoa	Ikastola	Euskal-pilota	Kiroldegian
	2.Astea	7	Zirkoa	Ikastola	Euskal-pilota	Kiroldegian
		9	Zirkoa	Ikastola	Euskal-pilota	Kiroldegian
	3.Astea	14	Euskal-pilota	Kiroldegian	Zirkoa	Ikastola
		16	Euskal-pilota	Kiroldegian	Zirkoa	Ikastola
	4.astea	21	Euskal-pilota	Kiroldegian	Zirkoa	Ikastola
		23	Euskal-pilota	Kiroldegian	Zirkoa	Ikastola
	5.Astea	28	Hockey	Ikastolan	Boleibola	Kiroldegian
		30	Hockey	Ikastolan	Boleibola	Kiroldegian
ABENDUA	1.Astea	5	Hockey	Ikastolan	Boleibola	Kiroldegian
		7	Jai eguna		Jai eguna	
	2.Astea	12	Boleibola	Kiroldegian	Hockey	Ikastolan
		14	Boleibola	Kiroldegian	Hockey	Ikastolan
	3.Astea	19	Boleibola	Kiroldegian	Hockey	Ikastolan
		21	Jai eguna		Jai eguna	
URTARRILA	1.Astea	9	Bio-dantz	Ikastolan	Herri-kirola	Ikastolan
		11	Bio-dantz	Ikastolan	Herri-kirola	Ikastolan
	2.Astea	16	Bio-dantz	Ikastolan	Herri-kirola	Ikastolan
		18	Bio-dantz	Ikastolan	Herri-kirola	Ikastolan
	3.Astea	23	Herri-kirola	Ikastolan	Bio-dantz	Ikastolan
		25	Herri-kirola	Ikastolan	Bio-dantz	Ikastolan
	4.Astea	30	Herri-kirola	Ikastolan	Bio-dantz	Ikastolan
		Otsa 1	Herri-kirola	Ikastolan	Bio-dantz	Ikastolan



# LEK PROGRAMA 2023-2024

## LH 3 maila

2. Lau-hilabetea			LH 3A taldea		LH 3B taldea	
			Monitoreak: Asier-		Monitoreak: Unai-Olatz	
			Jarduera	Non jaso	Jarduera	Non jaso
OTSAILA	1.Astea	6	Mahai-jolasak	Ikastolan	Errugbia	Kiroldegian
		8	Mahai-jolasak	Ikastolan	Errugbia	Kiroldegian
	2.Astea	13	Jai eguna		Jai eguna	
		15	Errugbia	Kiroldegian	Mahai-jolasak	Ikastolan
	3.Astea	20	Errugbia	Kiroldegian	Mahai-jolasak	Ikastolan
		22	Errugbia	Kiroldegian	Mahai-jolasak	Ikastolan
	4.Astea	27	Atletismoa	Larrotegin	Skate	Ikastolan
		29	Atletismoa	Larrotegin	Skate	Ikastolan
MARTXOA	1.Astea	5	Atletismoa	Larrotegin	Skate	Ikastolan
		7	Atletismoa	Larrotegin	Skate	Ikastolan
	2.Astea	12	Skate	Ikastolan	Atletismoa	Larrotegin
		14	Skate	Ikastolan	Atletismoa	Larrotegin
	3.Astea	19	Skate	Ikastolan	Atletismoa	Larrotegin
		21	Skate	Ikastolan	Atletismoa	Larrotegin
APIRILA	1.Astea	9	Igeriketa	Trinketen	Orientazioa	Plazan
		11	Igeriketa	Trinketen	Orientazioa	Plazan
	2.Astea	16	Igeriketa	Trinketen	Orientazioa	Plazan
		18	Igeriketa	Trinketen	Orientazioa	Plazan
	3.Astea	23	Orientazioa	Plazan	Igeriketa	Trinketen
		25	Orientazioa	Plazan	Igeriketa	Trinketen
MAIATZA	1.Astea	Api 30	Orientazioa	Plazan	Igeriketa	Trinketen
		2	Orientazioa	Plazan	Igeriketa	Trinketen
	2.Astea	7	Arrantza	Plazan	Futbola	Larrotegin
		9	Arrantza	Plazan	Futbola	Larrotegin
	3.Astea	14	Arrantza	Plazan	Futbola	Larrotegin
		16	Arrantza	Plazan	Futbola	Larrotegin
	4.astea	21	Futbola	Larrotegin	Arrantza	Plazan
		23	Futbola	Larrotegin	Arrantza	Plazan
	5.Astea	28	Futbola	Larrotegin	Arrantza	Plazan
		30	Futbola	Larrotegin	Arrantza	Plazan

# LEK PROGRAMA 2023-2024

## LH 4 maila

1. Lau-hilabetea			LH 4A taldea		LH 4B taldea	
			Monitoreak: Lur-Deiene		Monitoreak: Paul-Katalin	
			Jarduera	Non jaso	Jarduera	Non jaso
URRRIA	1.Astea	3	<b>Piragua</b>	San Pedropean	<b>Surf</b>	Karraspion
		5	<b>Piragua</b>	San Pedropean	<b>Surf</b>	Karraspion
	2.Astea	10	<b>Xake</b>	Kultur-etxea	<b>Skate</b>	Larrotegin
		12	<b>Jai eguna</b>		<b>Jai eguna</b>	
	3.Astea	17	<b>Surf</b>	Karraspion	<b>Piragua</b>	San Pedropean
		19	<b>Surf</b>	Karraspion	<b>Piragua</b>	San Pedropean
	4.Astea	24	<b>Xake</b>	Kultur-etxea	<b>Skate</b>	Larrotegin
		26	<b>Skate</b>	Larrotegin	<b>Xake</b>	Kultur-etxea
AZAROA	1.Astea	Urri 31	<b>Skate</b>	Larrotegin	<b>Xake</b>	Kultur-etxea
		2	<b>Atletismoa</b> (Tximista)	Larrotegin	<b>Futbola</b> (LFT taldea)	Larrotegin
	2.Astea	7	<b>Atletismoa</b> (Tximista)	Larrotegin	<b>Futbola</b> (LFT taldea)	Larrotegin
		9	<b>Atletismoa</b> (Tximista)	Larrotegin	<b>Futbola</b> (LFT taldea)	Larrotegin
	3.Astea	14	<b>Atletismoa</b> (Tximista)	Larrotegin	<b>Futbola</b> (LFT taldea)	Larrotegin
		16	<b>Atletismoa</b> (Tximista)	Larrotegin	<b>Futbola</b> (LFT taldea)	Larrotegin
	4.astea	21	<b>Atletismoa</b> (Tximista)	Larrotegin	<b>Futbola</b> (LFT taldea)	Larrotegin
		23	<b>Atletismoa</b> (Tximista)	Larrotegin	<b>Futbola</b> (LFT taldea)	Larrotegin
	5.Astea	28	<b>Atletismoa</b> (Tximista)	Larrotegin	<b>Futbola</b> (LFT taldea)	Larrotegin
		30	<b>Igeriketa</b> (Garraitz)	Trinketen	<b>Atletismoa</b> (Tximista)	Larrotegin
ABENDUA	1.Astea	5	<b>Igeriketa</b> (Garraitz)	Trinketen	<b>Atletismoa</b> (Tximista)	Larrotegin
		7	<b>Jai eguna</b>		<b>Jai eguna</b>	
	2.Astea	12	<b>Igeriketa</b> (Garraitz)	Trinketen	<b>Atletismoa</b> (Tximista)	Larrotegin
		14	<b>Igeriketa</b> (Garraitz)	Trinketen	<b>Atletismoa</b> (Tximista)	Larrotegin
	3.Astea	19	<b>Igeriketa</b> (Garraitz)	Trinketen	<b>Atletismoa</b> (Tximista)	Larrotegin
21		<b>Jai eguna</b>		<b>Jai eguna</b>		
URTARRILA	1.Astea	9	<b>Igeriketa</b> (Garraitz)	Trinketen	<b>Atletismoa</b> (Tximista)	Larrotegin
		11	<b>Igeriketa</b> (Garraitz)	Trinketen	<b>Atletismoa</b> (Tximista)	Larrotegin
	2.Astea	16	<b>Pilota</b> (Akarregi)	Kiroldegian	<b>Igeriketa</b> (Garraitz)	Trinketen
		18	<b>Pilota</b> (Akarregi)	Kiroldegian	<b>Igeriketa</b> (Garraitz)	Trinketen
	3.Astea	23	<b>Pilota</b> (Akarregi)	Kiroldegian	<b>Igeriketa</b> (Garraitz)	Trinketen
		25	<b>Pilota</b> (Akarregi)	Kiroldegian	<b>Igeriketa</b> (Garraitz)	Trinketen
	4.Astea	30	<b>Pilota</b> (Akarregi)	Kiroldegian	<b>Igeriketa</b> (Garraitz)	Trinketen
Otsa 1		<b>Pilota</b> (Akarregi)	Kiroldegian	<b>Igeriketa</b> (Garraitz)	Trinketen	

# LEK PROGRAMA 2023-2024

## LH 4 maila

2. Lau-hilabetea			LH 4A taldea		LH 4B taldea	
			Monitoreak: Lur-Deiene		Monitoreak: Paul-Katalin	
			Jarduera	Non jaso	Jarduera	Non jaso
OTSAILA	1.Astea	6	<b>Pilota</b> (Akarregi)	Kiroldegian	<b>Igeriketa</b> (Garraitz)	Trinketen
		8	<b>Boleibola</b> (Marierrota)	Kiroldegian	<b>Pilota</b> (Akarregi)	Kiroldegian
	2.Astea	13	<b>Jai eguna</b>		<b>Jai eguna</b>	
		15	<b>Boleibola</b> (Marierrota)	Kiroldegian	<b>Pilota</b> (Akarregi)	Kiroldegian
	3.Astea	20	<b>Boleibola</b> (Marierrota)	Kiroldegian	<b>Pilota</b> (Akarregi)	Kiroldegian
		22	<b>Boleibola</b> (Marierrota)	Kiroldegian	<b>Pilota</b> (Akarregi)	Kiroldegian
	4.Astea	27	<b>Boleibola</b> (Marierrota)	Kiroldegian	<b>Pilota</b> (Akarregi)	Kiroldegian
		29	<b>Boleibola</b> (Marierrota)	Kiroldegian	<b>Pilota</b> (Akarregi)	Kiroldegian
MARTXOA	1.Astea	5	<b>Boleibola</b> (Marierrota)	Kiroldegian	<b>Pilota</b> (Akarregi)	Kiroldegian
		7	<b>Futbola</b> (LFT taldea)	Larrotegin	<b>Bizikleta</b> (Amandarri)	Herri Eskolan
	2.Astea	12	<b>Futbola</b> (LFT taldea)	Larrotegin	<b>Bizikleta</b> (Amandarri)	Herri Eskolan
		14	<b>Futbola</b> (LFT taldea)	Larrotegin	<b>Bizikleta</b> (Amandarri)	Herri Eskolan
	3.Astea	19	<b>Futbola</b> (LFT taldea)	Larrotegin	<b>Bizikleta</b> (Amandarri)	Herri Eskolan
		21	<b>Futbola</b> (LFT taldea)	Larrotegin	<b>Bizikleta</b> (Amandarri)	Herri Eskolan
APIRILA	1.Astea	9	<b>Futbola</b> (LFT taldea)	Larrotegin	<b>Bizikleta</b> (Amandarri)	Herri Eskolan
		11	<b>Futbola</b> (LFT taldea)	Larrotegin	<b>Bizikleta</b> (Amandarri)	Herri Eskolan
	2.Astea	16	<b>Bizikleta</b> (Amandarri)	Herri Eskolan	<b>Arrauna</b> (Lekittarra)	Plazan
		18	<b>Bizikleta</b> (Amandarri)	Herri Eskolan	<b>Arrauna</b> (Lekittarra)	Plazan
	3.Astea	23	<b>Bizikleta</b> (Amandarri)	Herri Eskolan	<b>Arrauna</b> (Lekittarra)	Plazan
		25	<b>Bizikleta</b> (Amandarri)	Herri Eskolan	<b>Arrauna</b> (Lekittarra)	Plazan
MAIATZA	1.Astea	Api 30	<b>Bizikleta</b> (Amandarri)	Herri Eskolan	<b>Arrauna</b> (Lekittarra)	Plazan
		2	<b>Bizikleta</b> (Amandarri)	Herri Eskolan	<b>Arrauna</b> (Lekittarra)	Plazan
	2.Astea	7	<b>Bizikleta</b> (Amandarri)	Herri Eskolan	<b>Arrauna</b> (Lekittarra)	Plazan
		9	<b>Arrauna</b> (Lekittarra)	Plazan	<b>Boleibola</b> (Marierrota)	Kiroldegian
	3.Astea	14	<b>Arrauna</b> (Lekittarra)	Plazan	<b>Boleibola</b> (Marierrota)	Kiroldegian
		16	<b>Arrauna</b> (Lekittarra)	Plazan	<b>Boleibola</b> (Marierrota)	Kiroldegian
	4.astea	21	<b>Arrauna</b> (Lekittarra)	Plazan	<b>Boleibola</b> (Marierrota)	Kiroldegian
		23	<b>Arrauna</b> (Lekittarra)	Plazan	<b>Boleibola</b> (Marierrota)	Kiroldegian
	5.Astea	28	<b>Surf</b> (Leaktibai)	Karraspion	<b>Piragua</b> (Urtantak)	San Pedropean
		30	<b>Surf</b> (Leaktibai)	Karraspion	<b>Piragua</b> (Urtantak)	San Pedropean

Aste barruko saioak aparte asteburuko jolas eta kirol topaketek ere badute bere lekua eta garrantzia LEK egitasmoan. Ohiko lehiaketa eredutik aldendu nahian, topaketa hauek ikasleak, gurasoak, monitorea eta herriko kirol zein aisialdi elkarteak batzen dituen topagune bihurtu nahi izan dira. Topaketak, aste barruan landu den kirol baten inguruan edo ekintza berezi baten inguruan antolatzen dira.

Laburbilduz, bi topaketa mota bereizten dira; alde batetik, Bizkaiko Foru Aldundiak antolatutakoak (parte hartzeagatik diru laguntza jasotzen da); eta, bestetik, LEK elkarteak herriko kirol eragileekin antolatu eta prestatutakoak. Azken hauetako batzuetan, luntx batekin bukatzen dugu topaketa.



Topaketen inguruan hausnarketa bat behar dela sumatu dugu ume ta familien parte hartze datuak aztertu ondoren. Honez gain, herriko kirol nahiz kultura elkarteekin elkar lana egin behar dela argi geratu da; izan ere, asteburu batzuetan agenda ekintzaz beteta egoten baita. Eragina duten beste aspektu batzuk: eguraldia, familien gaur egungo egoera, Aldundiaren eskaintza...

Aurtengo topaketen inguruko ondorioak eta partaidetza datuak hurrengo lerroetan eta taulan laburtzen dira:

- Aldundiak antolatzen dituen topaketetan parte hartu edo ez erabaki behar da. Parte hartzeak bere abantailak ditu: ume bakoitzak bere eskola kirol segurua lortzen du eta elkarteak ditu laguntza jasotzen du.

- Aldundiko topaketetan izen ematen denean, derrigorrezkoa izaten da gero parte hartzea. Eta familiek oraindik ez dute hori ondo ulertzen eta balioan jartzen.
- Herritik kanpo, Aldundiak antolatutako topaketetara ume-guraso gutxi animatzen dira (autobusa LEK Elkarteak ordaintzen badu ere). Bertan behera geratu dira bi topaketa hau dela eta: Heziki Mundakan eta Bermeon.
- Orohar parte hartzea txikia izan da, batez ere, LH 1-2 mailetan. Arrakasta gehien izan duten topaketak, iaz bezala, herrian egindakoak eta gurasoekin batera direnak.
- Eguraldiarekin ez dugu sorte handirik izan aurten eta bertan behera geratu dira topaketa batzuk.
- Etapa baterako antolatzen diren topaketak, hau da, LH 1-2 edo LH 3-4 banatuta direnetan, parte hartze gutxiagoa izaten dute baina antolatzeko esfortzu berdina.
- Akarregi Euskal Pilota Elkarteari esker Aldundiak Euskal Pilotako topaketak Lekeitiora ekarri ditu.



DATA	TOPAKETA	MAILA	TOKIA	ANTOLATZAILEA	PARTAIDETZA	BALORAZIOA
AZA 5	HERRIKIROLA	LH 1-2	LEKEITIO	FEDERAZIOA	*30 ume	*Partaidetza ona *Herri-kirol ikuskizuna jarraian
AZA 11	ATLETISMOA	LH 3-4	LEKEITIO	ALDUNDIA	*40 ume	*Partaidetza ona. Etorkizuna dantza saioa dagoela ikusita
ABE 17	EUSKAL PILOTA	LH 3-4	LEKEITIO	ALDUNDIA	*25 ume	*Partaidetza txikia *Akarregi Elkarteari esker Aldundiak Lekeitiora ekarri topaketa berria.
ABE 17	HEZIKI	LH 1-2	MUNDAKAN	ALDUNDIA	<b>*BERTANBERA</b>	*Bidaia luzeegia *30 min. Topaketa da (laburregia)
URT 14	FAMILIAN KIROLA	LH 1-2	LEKEITION	LEK ELKARTEA	*23 ume	*Partaidetza txikia *Giro bikaina, bukaeran luntxa.
URT 28	HERRIKIROLA	LH 3-4	GERNIKAN	ALDUNDIA	*25 ume	*Partaidetza txikia *Giro bikaina, bikain antolatuta
OTS 4	EUSKAL PILOTA	LH 3-4	LEKEITIO	ALDUNDIA	*40 ume	*Partaidetza ona *Akarregi Elkarteari esker Aldundiak Lekeitiora ekarri topaketa berria.
OTS 25	SASIKOIPETSU	LH 1-2-3-4	LEKEITIO	LEK ELKARTEA	<b>*BERTANBERA</b>	*Eguraldi txarra *450 pertsonak izena eman *Mendi ibilbide laburra-luzea eta bukaeran plazan txosnak *Ikastetxeek lana eta dirua LEK-erako
MAR 3	HEZIKI	LH 1-2	BERMEON	ALDUNDIA	<b>*BERTANBERA</b>	*Bidaia luzeegia *30 min. Topaketa da (laburregia) *Topaketa+museoa+tren ibilbidea
MAR 3	HERRIKIROLA	LH 3-4	MARKINAN	ALDUNDIA	*16 ume	*Partaidetza txikia *Giro bikaina, bikain antolatuta
MAR 9	ATLETISMOA	LH 3-4	LEKEITIO	ALDUNDIA	*14 ume	*Partaidetza txikia
API 28	BIZIKLETA	LH 1-2-3-4	LEKEITIO	LEK/AMANDARRI	*111 ume/guraso	*Partaidetza handia *Giro bikaina, bikain antolatuta *Bukaeran luntxa
MAI 5	ATLETISMOA	LH 1-2	LEKEITIO	LEK/TXIMISTA	<b>*BERTANBERA</b>	*Tximistakoak ezin antolatu
MAI 18	HONDARTZA BOLEI	LH 3-4	LEKEITIO	ALDUNDIA	<b>*BERTANBERA</b>	*Eguraldi txarra
EKA 1	ARRAUNA	LH 1-2	LEKEITIO	LEK/LEKITXARRA	*20 ume-guraso	*Eguraldi txarra eta partaidetza txikia *Luntxa bertan bera ere
EKA 1	BIGSUP	LH 3-4	LEKEITIO	LEK/URTANTAK	*20 ume-guraso	*Eguraldi txarra eta partaidetza txikia *Luntxa bertan bera ere

## PARTAIDETZA DATUAK

Aurten LH 4 mailakoak parte hartu dute estreinakoz LEK proiektuan, eta ikasle horiekin programa bere osotasunean landu den lehenengo ikasturtea izan da. **Guztira 157 ikaslek eman dute izena (1. taula)**, iaz baino 43 ikasle gehiagok. Honez gain, lehenengoz izan ditugu Amoroto Herri Eskolako parte hartzaileak (5 ikasle LH 1-2 mailetan).

1.TAULA: PARTE HARTZE DATUAK GUZTIRA ETA IKASTETXEKO						
IKASTETXEA	MAILAK				PORTZENTAIK	
	LH 1	LH 2	LH 3	LH 4		
HERRI ESKOLA	24	3	20	26	73 ikasle	% 46
IKASTOLA	11	22	25	20	78 ikasle	% 50
AMOROTO	5	1	0	0	6 ikasle	% 4
<b>GUZTIRA</b>	<b>40</b>	<b>26</b>	<b>45</b>	<b>46</b>	<b>157 ikasle</b>	

**Gogoratu behar da inguruko herrietako ikasleak gure proiektuan parte hartu ahal izateko irizpide batzuk onartuta dituela Udal LEK Batzordeak:**

1. Lekeitioko Udalarekin kontaktuan jarri.
2. Herri horretako kirol eskaintzan ez du eragin negatiborik izan behar.
3. LEK programaren ordutegia zaindu beharko dute.

**Parte hartze datuak ikastetxeko eta mailaka alderatzen baditugu (2. taula)**, Herri Eskolak maila horietan dituzten ikasleen erdiak parte hartzea lortu du aurten lehen aldiz (**% 52**); baina ikastolako ikasleen partizipaziotik urrun oraindik, Ikastolan ikasleen **% 80ak** parte hartzen baitu.

Datu esanguratsuena Herri Eskolako LH 2 mailako taldean eman da berriro. Iazko datuen antzera, gela honetako 26 ikasletik bakarrik 3k parte hartu dute LEK-n. Honelako datuek ikastetxeetan gurasoekin kontzientziazio-formazio lan handiagoa egin behar dugula agerian utzi dute beste behin ere; batez ere, proiektu honen sorrera ikastetxeek udalari egin zioten eskaeratik datorrela ikusita.

Lekeition 238 ume daude LH 1-2-3-4 mailetan eta horietatik 151k parte hartzen dute LEK programan (**% 63**). Beraz, 87 herriko ume dira programan parte hartzen ez dutenak.

2.TAULA: LEKEITION PARTE HARTZE OROKORRA, MAILAKA ETA IKASTETXEKO					
IKASTETXEA	MAILA	IKASLEAK GUZTIRA	LEK PROIEKTUAN	PORTZENTAIA	LABURPENA
<b>HERRI ESKOLA</b>	LH 1	34	24	%71	140 ikasletik <b>73 LEKen</b> %52
	LH 2	26	3	%12	
	LH 3	35	20	%57	
	LH 4	45	26	%58	
<b>IKASTOLA</b>	LH 1	17	11	%65	98 ikasletik <b>78 LEKen</b> %80
	LH 2	25	22	%88	
	LH 3	31	25	%81	
	LH 4	25	20	%80	
<b>GUZTIRA LEKEITION</b>	LH 1-2-3-4	238 ume Lekeition	<b>151 ikasle LEKen</b>	<b>%63 LEKen dabil</b>	

LEK programan parte hartzen ez duten umeen inguruan informazioa jasotzeko ahalegina egingo zela aipatu zen iazko balorazioetan. Aurtengo memorian datu horiek jaso nahi izan ditugu, partizipazioa igotzeko estrategien inguruan eztabaidatzeko. Hona hemen laburbilduta ikusitakoa:

**a) LEK egiten ez duten 87 umetatik:**

- **22k** kiroldegiak eskainitako **ballet** jarduera egiten dute (**14** LH 1-2 / **8** LH 3-4).
- **16k** kiroldegiak eskainitako **igeriketa** ikastaroa (**13** LH 1-2 / **3** LH 3-4).
- **2k** **inguruko herrietan** egiten dute kirol jardueren bat (dantza bertikala Ondarroan eta gimnasia erritmikoa Gernikan).
- **47k ez dute kirol jarduerarik egiten.**

**b) Kirol jarduerarik egiten ez duten 47 ikasletik:**

- **40** ikasle Herri Eskolakoak dira eta **7** ikasle Ikastolakoak.
- Horietako **15ek** musika, pintura edo errefortzu partikularrak egiten dituzte.
- Baina **32 ikaslek** ez dute ezer ere egiten ikastetxeko orduetatik kanpo.

**c) Ezer ere egiten ez dutenen 32 ikasletik:**

- Zenbatek egiten du Lekeiotik kanpo jardueren bat? (**ez da jaso**)
- Zenbat dira atzeritik herrira bizitzen etorri direnak? (**15** inguru)
- Zenbat dira aniztasun funtzionala dutenak? (**3k** bai behintzat).

Partizipazio datuekin bukatzeko, izena eman duten neska eta mutilen kopuruak aztertu dira (**3. Taula**). Bi ikastetxeetako eta datu orokorrak alderatuta, nesken partizipazioa **% 35koa** dela ikusi da (iazko berdin), mutilena baino nahiko txikiagoa



(% 65). Kontuan izateko datuak dira herrian adin horietako **103 neska** daudela ikusita, eta **54** bakarrik parte hartzen (% 52). **Mutilak**, berriz, **135** dira herrian adin horietan eta LEKn **99k** parte hartzen dute (% 73).

Lehendabizi, arrazoiak aztertu beharko dira; eta, ondoren, nesken parte hartzea igotzeko proposamenak bilatu eta bultzatu.


3.TAULA: NESKA-MUTIL ALDERATZE DATUAK GUZTIRA ETA IKASTETXEKO							
IKASTETXEA	MAILA	IKASLEAK GUZTIRA	NESKAK		MUTILAK		LABURPENA
			GUZTIRA	LEK	GUZTIRA	LEK	
<b>HERRI ESKOLA</b>	LH 1	34	14	10	20	15	28 ume LEKen
	LH 2	26	15	1	11	2	<b>11 neskak (%39)</b>
	LH 3	35	15	8	20	13	47 ume LEKen
	LH 4	45	19	9	26	17	<b>17 neska (%36)</b>
<b>IKASTOLA</b>	LH 1	17	9	5	8	6	33 ikasletik
	LH 2	25	12	10	13	12	<b>15 neskak (%45)</b>
	LH 3	31	9	5	22	20	45 ikasletik
	LH 4	25	10	6	15	14	<b>11 neskak (%24)</b>
<b>GUZTIRA LEKEITION</b>	<b>LH 1-2-3-4</b>	<b>238 ume guztira</b>	<b>Guztira herriko neskak 103 (%43)</b>		<b>Guztira herriko mutilak 135 (%57)</b>		<b>LEK neskak guztira 54 (%35)</b>



## KOMUNIKAZIOA

Komunikazio atala garrantzi handiko lan eremua dugu. Bertan, batez ere, gurasoekin egiten diren komunikazio bide guztiak egoki erabiltzea eta informazio eguneratua izatea izan dira berriro aurtengo erronkak. Hori dela-eta, hurrengo irizpideak jarri genituen ikasturte hasieran:

- Guraso Whatsapp taldeak ikasle ekipoetara mugatzea (LH 1 taldea, LH 2A taldea...), komunikazioa argia jartzea bi hizkuntzetan eta denboraz bidaltzea mezuak. LEK koordinatzaileak hartu du ardura hori.
- LEK proiektuaren Web orriko informazioa, une oro, eskuragarri eta eguneratua egotea. Ikastolak hartu du ardura hori bere informatikoarekin eta LEK koordinatzaileak lagunduta.



- Facebook eta Instagram LEK kontuak erabiltzea, bertara albiste eta informazio garrantzitsu eta baliagarria igotzeko. LEK koordinatzaileak hartu du ardura hori.
- Izena emateko inprimakian argazki eta bideoak sare sozialetara zabaltzeko baimena eskatu zaie gurasoei.
- LEK proiektuaren informazioa guztia Drive karpeta baten dago txertatua. Bertan elkartearen dokumentu garrantzitsuak daude eta LEK saiotarako monitore-heitzaileak behar duten guztia ere.
- Formazioari dagokionez, aurten ezin izan dugu ekarri eskola kirolean aditua den norbait gurasoekin eta kirol elkarteko ordezkariekin kirol anitzak kirol hastapenean duen eraginaren inguruan hitzegiteko. Honelako hitzaldi eta formazioak ezinbestekoak dira herriko eskola kirola eredua ondo ulertzeko, baita guraso edo kirol taldeko ordezkariak hastapen kirolak izan behar dituen ezaugarriak argi ulertu ditzaten ere.

## BALANTZE EKONOMIKOA

Hurrengoko tauletan laburbildu dira diru gastu, sarrerren eta finantzazioa datuak. Gastu handiena monitore-hezitzaile eta koordinatzailearen soldatak eraman dute berriro. Sarreretan, berriz, Udalak ingresuen **%40a** jarri du eta gurasoen kuotak beste **%48a**.

Udalarekin dagoen hitzarmena 2024ko urtarrilean bukatu zen eta oraindik berria sinatzeko dagoen arren, ikasturte honetako partida jaso da. Ikastetxeak, bestalde, aurten ez dute ekarpenik egin Sasikoipetsu eguna bertan behera geratu zelako eguraldia dela eta.

<b>GASTUAK</b>			
<b>KONTZEPTUA</b>	<b>KONTZEPTUA</b>	<b>AZALPENA</b>	<b>ZENBAT</b>
<b>Pertsonala</b>	Nominak	Kontratua duten monitore eta koordinatzaile nominak	<b>31.220€</b>
	Gizarte-segurantza	Nominen gastua gizarte segurantzian	<b>13.577€</b>
	Aparteko orduak	Asteko ordutegitik kanpo egindako lan orduak (15€ ordua)	<b>5.501€</b>
	Kolaborazioak	Jarduera berezietarako monitore adituen kolaborazio gastua	<b>1.571€</b>
<b>Desplazamenduak</b>	Autobusak	Aldundiko topaketetara joateko autobusa	<b>2.580€</b>
<b>Programa</b>	Jolas eta kirol jarduerak	Aste barruko eta asteburuko kirol jarduera bereziak	<b>4.323€</b>
	Topaketak	Asteburuko topaketen pintxoak eta sariak	<b>872€</b>
	Kirol elkarte kuota	Kirol elkarteekin LH 3-4 mailetan: 40€ ume bakoitzeko	<b>3.400€</b>
<b>Materiala</b>	Kirol materiala	LEK saioetan erabiltzen ditugun ikastetxeetako kirol materiala hornitzeko	<b>1.263€</b>
	Kirol jantziak	Begirale eta umeentzako LEK jantziak	<b>469€</b>
	Material didaktikoa	Saioak prestatzeko liburuak	<b>80€</b>
<b>Kudeaketa</b>	Aholkularitza	Izayfer Asesoriaren lana (kontratuak, bajak-altak, nominak)	<b>1.767€</b>
	Aseguruak	LEK aseguruak (langileak, Elkartea)	<b>711€</b>
	Aldundia	Aldundiko elkarte tasak	<b>264€</b>
	Bankua	Kuota ordainketa, transferentzia, itzulketa eta mantenu komisioak	<b>340€</b>
	Komunikazioa	Web orria	<b>0€</b>
<b>GUZTIRA</b>			<b>67.938€</b>

SARRERAK			
KONTZEPTUA	KONTZEPTUA	AZALPENA	ZENBAT
Kuotak	Familien kuota LEK	LEK programan parte hartzeko urteko kuota 180€ (seme/alaba bi 270€, hiru seme/alaba 330€)	<b>30.430€</b>
	Familien kuota Kirol elkarteak	LH 3-4 mailakoek bakarrik: kirol talde bakoitzeko 40€	<b>3.400€</b>
Hitzarmena	Udal hitzarmena	LEK proiektuaren bidegarritasuna bermatzeko Udal ekarpena	<b>28.306€</b>
Diru laguntzak	Aldundia	Aldundiko kirol programan izena eman eta parte hartzeagatik	<b>5.333€</b>
	Ikastetxeak	Ikastetxeen ekarpena (sasikoipetsu eguna...)	<b>326€</b>
	Babesleak	Inguru hurbileko enpresa, bankuak...	<b>3.000€</b>
<b>GUZTIRA</b>		<b>70.795€</b>	

FINANTZIAZIO MAILA				
FAMILIA KUOTAK	UDALA	BABESLEAK	ALDUNDIA	IKASTETXEAK
<b>% 48</b>	<b>% 40</b>	<b>% 4</b>	<b>% 7,5</b>	<b>% 0,5</b>



## BALORAZIOAK

Iaz bezala, LEK programak izan duen harrera ikusi nahi izan dugu familiei bideratutako balorazio galdetegiarekin eta umeekin, begirale-hezitzaileen nahiz kirol elkarteen aldetik jasotako ekarpenekin.

Datu hauek ikasturte bukaeran jaso baditugu ere, ikasturtean zehar familiek aukera izan dute LEK koordinatzailearengana hurreratzeko eta beraien kezka adierazteko. Bestalde, begirale-hezitzaileekin eta herriko kirol elkarteekin bi hiletik behin balorazio batzarrak izan ditugu, LEK programak behar zituen moldaeren inguruan hitzegiteko eta proiektuaren irizpideak osatzen joateko.

Hona hemen, laburbilduta, batzarretan eta galdetegiarekin jaso ditugun balorazioak eta ekarpenak:

### **1. LEK programan parte hartzen duten kirol taldeekin egindako balorazio batzarrean jasotakoak:**

- 2024-2025 ikasturterako aurtengo programaren antzekoa egitea.
- LEK Elkarte herriko hezkuntza eta kirol batzordeetan parte hartzea.
- Herri Eskolan arduradun bat edo koordinatzaile bat egotea bertan 15:00-18:00 honako lanak errazteko: materiala, instalazioak, azken orduko aldaketak, argiak, komunak, giltzak, materiala gordetzeko lekuren bat izatea.
- Kirol taldeetara doazen LH 3-4 mailako ikasleen jarraipena eramateko Drive karpeta beraiekin partekatzea.
- LH 3-4 mailetan, kirol elkartera joateko aukera ematen duten elkarteei diru laguntza irizpideetan baloratzea.
- LH 3-4 mailetan kirol elkarteetan aritzeko jarri diren LEK irizpideak egoki ikusten dituzte.

### **2. Begirale-hezitzaileekin egindako balorazio batzarrean jasotakoak:**

#### **2.1 Ikastetxeekin dugun harremana atala.**

##### **2.1.1 Ikasleen izaerak, ezaugarriak eta beharizanen inguruan:**

- Ikasleen inguruko informazio falta aipatzen dute: ezaugarri eta egoera berezian dauden ikasleen berria jasotzea, nola jokatu beraiekin adostea. Hezkuntza batzordean parte hartzen badugu 2024-25 ikasturtean egoera horri soluzioa jarri beharko zaio.

- Ikasleak bakarrik etxera joateko baimena hobeto finkatzea (ikasturte osoan izatea baimena edo ez).
- Alde handia dagoela ikusi dute ikastolako eta eskolako artean errespetu jarrera alderatuta. Eskoletako LH 3-4 mailakoek errespeto gehiagoz jokatzeko dute.

### **2.1.2 Ikastetxeen materiala eta instalazioen inguruan zer hobetu:**

- Herri Eskoletan arduradun bat egotea (LEK erreferentea) 15:00-18:00 bitartean, materiala, instalazioak eta bitarteko guztiak errezago kudeatzeko. Horrela Herri Eskolako materiala gehiago erabiliko litzateke eta ikastolako ez da eraman behar.
- Ikastolan bezala Herri Eskolan begiraleak batzeko gune bat izatea 15:45-16:15 tartean, dena egoki antolatzeko.

### **2.1.3 Ikasleak hartzeko eta bukaeran gurasoei emateko tarteen hobekuntza atalean:**

- LH 1-2 mailakoak geletan hartzen jarraitu, baina LH 3-4 mailakoekin batzeko puntura beraiek etortzea bakarrik.
- Irakasleak ordua zaintzea bestela berandu iritsiko gara saioen lekura.
- Ikasleak ez etortzea patin eta bizikletekin saiora, batez ere, beste gune batera ibilbidea egin behar badute.
- Herri Eskoletan eraikin gorriko eskalada gunean batzea eta gurasoei seme/alabak jasotzeko gune izendatzea, horrela, aldagelak erabiltzen hasiko ginateke.
- Iturriotz, Herri Eskola eta Larrotegi guneetan diren saioetan gune horretan (eraikin gorriko aldagela gunean) jaso beharko dituzte seme/alabak gurasoek.

## **2.2 LEK programa eta saioen inguruan hobetzeko atala.**

### **2.2.1 Programatutako jolas, jarduera eta kirolen inguruan hobetzekoak:**

- Ikasleek LEK programa ondo ikusten dute, baina beraiek azken balorazio egunetan komentatutakoak gehitzea programan: ping-pong, badminton, tenisa, islara eta talaiara ibilbideak, arte lanak, funky, yoga.
- Gehien gustatu zaiena LH 4 mailatan: Piragua, surf, futbola, boleibola, atletismoa, arrauna, bizikleta, igeriketa.
- Eguraldia dela eta aldaketak daudenean mahai jolasen ordezkariak ere sartzea edo eskalada kiroldegian.
- Bio-dantza eta gorputz-adierazpen saioak LH 1-2 mailatan oso antzekoak izan dira eta gainera bat besteari atzetik programatu ditugu.
- LH 4 mailatan kirol elkarteekin 7-8 saio egitea gehiegi ikusten dugu (hoba 4-5-6).

### **2.2.2 Saioetan kirolen araberako monitore hezitzaileen mugimenduak (talde batetik bestera) direla eta:**

- Begirale adituak mugitzea ondo ikusten da (saioen kalitatea bermatzeko), beti ere, taldeko monitore erreferente bat geratzen bada.
- Aldaketak ematen direnean, aurretik, monitore taldean abisua ematea (azken orduko bajak direnean batez ere).

### **2.2.3 Saioaren egituraren inguruan ezer aldatzeko ikusten bada atalean:**

- Jardueren denborak hobeto zaintzea ikusten da, saioa osotasunean lantzeko.
- Saioen egitura ondo planteatuta ikusten dute: hasiera, garapena, bukaera. Bukaera tartea askotan egin gabe geratzen da (hobetzeko gauza).
- Ondo ikusten dute: taldea bitan banatzea, baikotza monitore batekin eta jolas-jarduera bat egiten, gero aldaketa emateko (denbora irabazi eta jolas berdinean monitore bera izatea aurrezten dute).
- Ikasleekin programako zein ataletan gauden erreparatzea eta azken saioaren gertaeren inguruan erreparatzeko tartea hasieran eskaintzea ondo ikusten dute.

## **2.3 Beste gai batzuen eztabaida atala.**

### **2.3.1 LEK Drive karpeta eta informazio kortxoaren atalean:**

- Drive-ko asistentzia orria askotan bete gabe geratzen da. Saioa bukatu eta berehala eskuz idatzitakoa Drive-era pasa beharko litzateke.
- Drive-n karpetan eta kortxoan dagoen informazioa oso baliagarria dela aipatzen dute.

### **2.3.2 Nominen eta ordainketen inguruan:**

- Agian nominak email bidez bidaltzea hobeto ikusten dute, eskuz eman baino.

### **2.3.3 Ikasleekin hitz egiteko modua zaintzearen inguruan:**

- Kontutan hartzeko gaia dela aipatzen da orokorrean: ikasleei hitz egiteko modua, zer eta nola esan, ikaslea egun horretan nola dagoen ikusten aditasuna gehiago jartzea, ikasturtean zehar ikasleen izaerak barneratzen joatea.
- Saioetan gertatzen diren gertaera eta gatazken aurrean nola jokatu ere garrantzizkoa dela (agian gai honen inguruan formazioa egin dezakegu).
- Ikasleen berri gehiago jasotzea beraien irakasleen aldetik. Honez gain, arloen informazioa bezain garrantzitsua dela LEK saioetan duen jarrera ezagutzea ere.

- Taldeko begiraleen artean ikasleen erreferentea zein den zehaztea, begiratzea.
- Saio hasieran gogoratzea eta galdetzea ikasleei nola daude, ezer behar badute eskatzeko, urduri-triste-haserre daudenek bertara joateko guneak jartzea.

### 3. Familien asebetetze galdetegian jasotakoak:

Galdetegia bete duten familien erantzunak ikusi eta gero, esan ia gehienak oso ondo baloratu dutela 2023-24 ikasturteko LEK programa. Orokorrean seme/alaba gustura etorri dela LEK saioetara aipatu dute galdetegia bete duten 92 familiek (**%60**). Balorazioei erreparatuta aipatzeko izan da begirale-hezitzaile taldea oso ondo baloratua izan dela (iazko balorazioak hobetuz); eta ia gehienek animatuko lukete beraien senide edo ezagunen bat LEK programan parte hartzera.

Galdetegiaren azken atalean gurasoek egin dituzten ekarpen idatziak irakur ditzakezue. Bertan, besteak beste, hasi dira eskatzen LEK programa LH 5 mailako ikasleei zabaltzea. Halere, eskaintza hori ez da datorren ikasturterako aurreikusten.



Galdetegiaren erantzunak eta batezbestekoak ikus ditzakezue hurrengo orrialdetan:





## LEK PROGRAMAREN BALORAZIO GALDETEGIA 2023-2024

*(Encuesta de satisfacción del programa LEK de deporte escolar)*

**B** *I* U

**Guraso agurgarria:**

**Uretako topaketarekin bukaera ederra eman diogu aurtengo eskola kirola programari. Zuen seme/alaba gustura ibili izana espero dugu!**

**Hiru urte pasa dira programa martxan jarri genuenetik eta aurtén, estrainakoz, lehen hezkuntzako 1-2-3-4 mailakoak izan ditugu martxan. LEK elkarteko kideek eta herriko kirol elkarteek itzelezko lana egin dute saioak eta topaketak ondo antolatuak, kalitatezkoak eta hezigarriak izateko. Baina, zuen iritzia eta sententzioak ezagutzea ezinbestekoa zaigu, Lekeitioko kirol hastapen eredu berria garatzeko egiten ari garen ahaleginak bide onetik doazen ikusteko. Mila esker alde aurretik!**

\*Con el encuentro acuático cerramos el programa de deporte escolar de este año. ¡Esperamos que vuestro hijo/a se lo haya pasado genial!

Han pasado tres años desde que pusimos en marcha el programa y este año, por primera vez, hemos tenido en marcha los cursos de 1-2-3-4 de primaria. Los miembros de la asociación LEK de deporte escolar y los clubs deportivos locales han realizado un gran trabajo para que las sesiones y encuentros hayan estado bien organizados. Sin embargo, nos resulta imprescindible conocer vuestra opinión y sensaciones para ver si los esfuerzos que estamos realizando para desarrollar este nuevo modelo de iniciación deportiva en Lekeitio van por buen camino. ¡Gracias de antemano!


**Adierazi ezazue zuen asebetetze maila balorazio eskala honen arabera. Galdetegia anonimoa da eta jasoko duen informazio pertsonal bakarra seme/alabaren ikasturtea izango da.**

\*Indique su grado de satisfacción según la siguiente escala de valoración. El cuestionario es anónimo.

**1 Ez nago batere ados/no estoy nada de acuerdo; 2 Ez nago ados/no estoy de acuerdo; 3 Zertxobait ados nago/estoy algo de acuerdo; 4 Ados nago/estoy de acuerdo; 5 Erabat ados nago/estoy totalmente de acuerdo**


1. Adierazi zure seme/alabaren maila. \*Indique el curso de su hija/o.

92 respuestas




2. Nire seme/alaba pozik joan da eskola kirolera. \*Mi hija/o ha asistido contento al deporte escolar.

92 respuestas




3. Proposatutako jolas eta kiroleetan gustora ibili da. \*Mi hija/o ha participado motivado en los juegos y deportes programados.

92 respuestas




4. Bere taldeko kideekin harreman ona izan du. \*Mi hija/o ha tenido una buena relación con los integrantes de su grupo de deporte escolar.

92 respuestas




5. Monitore hezitzaileekin gustora ibili da (hurbilak izan dira eta laguntza behar izan duenean eskaini diote). \*Mi hijo/a ha estado a gusto con lo... y le han ofrecido ayuda cuando lo ha necesitado).

92 respuestas




6. Eskola kiroleko programa erakargarria eta egokia izan da adin hauetako umeentzat. \*Ha sido un programa de deporte escolar atractivo y adecuado para niñas/os de estas edades.

91 respuestas




7. Lagun edo senide bati Lekeitioko eskola kirol programan izena ematera animatuko zenioke.  
 \*Animarías a algún amigo o familiar a apuntarse al programa de deporte escolar de Lekeitio.

92 respuestas




8. Eskola kiroleko informazioa bidaltzeko eta gertaeren inguruan hitz egiteko gurasoekin izandako komunikazioa eta harremana egokia izan da (whats...n problema que haya surgido ha sido adecuada.

91 respuestas




9. Eskola kirolaren web orria (lekeitiokoeskolakirola.org) erabilgarria da informazioa, albisteak edo argazkiak eskuragarri izateko? \* ¿La página web del ...do a la información, a las noticias o fotografías?

89 respuestas




10. Nola baloratzen duzue LEK programan izena eman duten LH 3-4 mailetakoko ikasleek herriko kirol taldeetan parte hartzeko aukera izana? (gehienez b...portivos y una sesión semanal por club deportivo)

77 respuestas



11. Aurten LEK programa bukatzen duen LH 4 mailako ikaslea bazara, datorren ikasturtean zein kirol ibilbide aukeratuko duzun argi daukazu? \* Si er... itinerario deportivo vas a elegir el próximo curso?

44 respuestas



- Datorren urtean LH 1, LH 2 edo LH 3...
- Amandarri Triatloi Taldea. \*Club de Triatlo...
- Akarregi Euskal pilota Taldea. \*Club d...
- Garraitz Triatloi Taldea. \*Club de Triatl...
- Jokin Erdozia Xake Taldea. \*Club de...
- Lekeitio Futbol Taldea. \*Club de Futbol...
- Lekeitalde Txirrindularitza Taldea. \*Cl...
- Lekitarra Arraun Taldea. \*Club de Re...
- Marierrota Boleibol Taldea. \*Club de Voleibol Marierrota.
- Tximista Atletismo Taldea. \*Club de Atletismo Tximista.
- LEK programan jarraitu LH 5 mailan (eskaintza balego). \*Continuar en el programa LEK (si se oferta).

**12. Beste edozer aipatzeko edo adierazteko erabili tarte hau.** \*Utilice este espacio para comentar o expresar sensaciones y propuestas.

30 respuestas

Eskerrik asko guztiagatik, lan ederra egiten duzue!

Oso pozik!

Datorren urtean Amorotoko umeak eskola edo ikastolan ustea 16:15etan Ondo egongo litzake, momentuan aldaketarik izan ezker beste umeekin daudelako hasieratik.

Noizko baleta kirol instalazioetatik kanpo edota lh3ko aukera bezala?

Eskerrik asko benetan, egindako lanagatik!!

Txirindularitza saioetarako bizikleta eramateko zailtasunak izan ditugu. Lekeitiotik kanpo bizitzerakoan, bizikleta eraman eta ekartzea arazoa izan da. Ez dakit hurrengo urteerarako nonbaiten uzteko aukera egongo zen..

Eskerrik asko egindako lanagatik!!

Saio batzuk daude (bizikleta, arrauna edota skate) bertan behera geratuz gero, errekueratzea gustatuko

Excelente trabajo de los encargados coordinadores monitores todo el equipo responsables y atentos a los niños cabe destacar que siempre buscan facilitarte opciones para que el/la niña pueda participar en sus sesiones y no deje de asistir por cualquier necesidad que tengan muy agradecida y satisfecha

Especializazio goiztiarra ekiditzeko programa bezala sortu zen eskola kirola, baina LH3tik aurrera futbola eskaintzen duzuen momentuan umeak futbolera bideratzen zaudete. Guraso bezala hori akats handia dela ikusten dugu.

Familiok jaso dugun informazioagatik zorionak antolatzen duzuenoi. Oso gustora egon gara ikasturte honetan

Kudeaketa egokia izan dela uste dugu eta haurra oso pozik ibili da.

Jarraitu umeak kirolek modu hezigarrian hezten! Txalotzekoa egiten ari zaretena. Interesgarria litzateke maila altuagotan ere LEK proiektuak bere bidea garatzea. Animoso eskerrrik asko!

Yo creo que voleibol u otro tipo de deporte que no sea el fútbol no se ha tratado igual o no se le da la importancia que se le da al fútbol y por otro lado sería de agradecer que tuvieran en cuenta que los sábados hay niños que van al grupo de Dantza de Lekeitio por lo cual ese día no pueden asistir a la mañana a actividades que se organizan.

El cambio de lugares para coger ir a recogerles tampoco es de mi agrado y o que en el último momento se deje de hacer una actividad para merendola o valoración de curso,eso debería se aparte.

Apenas han tenido actividades de agua,cosa importante en Lekeitio.

10 bat danian

Matias ha asistido super contento a los encuentros, también los días que tenían deporte después de la ikastola, con Lupo también nos hemos tenido muy buena comunicación! No tenemos ninguna queja

Fenomeno

Oso ondo dana

Nire alabak izandako monitoreekin

Oso oso pozik egon gara, eta batez ere haurrak eurak

Kirol ezberdinen eskaintza gehiago euki izana bota dut faltan, eskalada adibidez.

Oso lan ona egin duzue! Oso pozik eta gustora. Eskerrik asko!!

Gracias a todos sois unos campeones!



## 2024-25 IKASTURTERAKO AURREKONTUA ETA PROPOSAMENAK


Azken atal honetan, datorren ikasturterako LEK proiektuak beharko dituen egokitzapenak, aurrekontua, egutegia eta kirol programa proposatuko dira. Kontuan izan aurreikuspen bat dela eta irailean parte hartze datuekin borobildu beharko dugula.

Monitore-hezitzaileei dagokionez, aldaketa gutxi egongo dela aurreikusten da ia gehienak jarraituko baitute. Azken bi urtetan LEK koordinatzaile moduan aritu dena, berriz, ikastolan duen irakasle jardun osora bueltatuko da; beraz, koordinazio lana egingo duen pertsona bilatu beharko da. LEK Elkarteko kideek eta Udala badabiltza ordezeko bat jartzeko lanetan. Honen harira, Udal kirol zerbitzuen kudeaketarako kontratazio berri bat egingo da gabonak orduko; eta, dena ondo badoa, pertsona hori arduratuko litzateke LEK programaren koordinazioaz.


Aldaketa horrek eta hiru urtetako ibilbideak LEK proiektua aurrera ateratzeko lanetan dabiltzan agenteek izan behar dituzten ardurak eta funtzioak argitu beharra jarri dute mahai gainean. Besteak beste:

- Zer da LEK Elkartea, nortzuk osatu behar dute eta zein funtzio bete?
- Zeintzuk dira ikastetxeek bete behar dituzten funtzioak?
- Zein batzordean eta nola landu behar dira LEK programarako irizpideak?

Gai potolo eta garrantzitsu horri argi izpi bat jartzeko asmoarekin hurrengo antolaketa eredia proposatzen da (irailean erabakiko da):







LEK ELKARTEKO LAN TALDEA	
ARDURADUNA	FUNTZIOAK
<b>Zuzendaria</b>	LEK elkarteko estatutuak egunean izan.
	LEK Elkarteak Udalarekin duen hitzarmenaren jarraipena eraman.
	Udal LEK batzordearen deialdia, prestaketa, aurrera eraman eta akta jaso-bidaltzeko ardura.
	Gurasoekin egiten diren batzar nahiz formazioen antolaketa eta aurrera eramateko ardura.
	LEK Elkarteko lan taldean parte hartzeko gurasoen deialdian/aukeraketan parte hartu.
<b>Idazkaria</b>	LEK programan izena ematen duten familien datuak eta dokumentuak egunean daudela arduratu.
	LEK Web gunea eta Drive karpeta eguneratua eta erabilgarri dagoela arduratu.
	LEK Elkarteko seguruak egunean izaten arduratu.
	Aldundiko diru laguntza deialdian izena emateko ardura.
	Monitore eta koordinatzailearen nominak ordaintzeko ardura
<b>Diruzaina</b>	LEK kuoten jarraipena eta ardura.
	LEK diru kontuen jarraipena eta ardura.
	LEK proiekturako babesleak bilatzeko eta beraien eskakizunak betetzeko ardura (publizitatea).
	Kirol materiala eta jantzien erosketak baimendu eta jarraipena eraman.
	Izaifer aholkularitza zerbitzuaren jarraipena egin (nominak, altak-bajak).
<b>Guraso ordezkariak</b>	LEK programan umeak dituztenen artean ikastetxe bakoitzeko 2-4 gurasok osatuko dute.
	Zuzendariari, idazkariari eta diruzainari laguntza emateko lanetan ibiliko dira.
	Udal LEK batzordean hauekako guraso 1-2k parte hartuko dute.
	Parte hartzeko konpromisua: 1 edo 2 ikasturte

IKASTETXEAK	
ARDURADUNA	FUNTZIOAK
Zuzendaria	<p><b>LEK programa aurrera eramateko behar diren baliabideak jarri:</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>+Espazioak eta materiala: kirol materiala, patioak, gelak, kirol instalazioak, aldagelak, komunak.</li> <li>+LEK saioen arduradun bat ikastetxean arratsaldeko 15:00-18:00, monitoreek behar duten guztia bideratzeko.</li> </ul>
	<p><b>LEK proiektuari lekua egin ikastetxeko foroetan:</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>+Hezkuntza eta kirol proiektuetan txertatua izan.</li> <li>+Irakasle klaustroetan LEK programaren berri eman.</li> <li>+Gurasoekin egiten diren batzarretan ikastetxe proiektu garrantzitsu moduan aurkeztu/azaldu eta izena ematera animatu.</li> <li>+Ekaina bueltan HH 5 gurasoekin batzarra egin eta LEK proiektua azaldu.</li> <li>+Eskola kirolaren inguruan antolatzen diren hitzaldi nahiz formazioetan parte hartzera animatu familiak.</li> </ul>
LEK ordezkaria	<p><b>LEK programan inskribatzen laguntza eman:</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>+Izena emateko zailtasunak dituzten familiei laguntza eman: programa eta antolaketa azaldu, izena ematen lagundu, urteko kuotaren gorabeherak eta laguntzak azaldu.</li> <li>+Aldundiko aplikazioan lehen aldiz izena eman behar dutenei laguntza eman.</li> <li>+Izena ematerakoan txertatu behar dituzten dokumentuak nola lortu eta zelan egin behar duten azaldu.</li> </ul>
	<p><b>Egoera eta ezaugarri bereziak dituzten ikasle eta familiei laguntza eman:</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>+Aniztasun funtzionala duten ikasleen jarraipena egin: tutorea, familia, ikastetxeko LEK ordezkaria.</li> <li>+LEK koordinatzaileak nahiz hezitzaileak behar duten informazioa helarazi ikastetxeko LEK ordezkariaren bitartez.</li> </ul>
LEK ordezkaria Zuzendaria	<p><b>LEK proiektuaren inguruan antolatzen diren batzordeetan parte hartu:</b> hezkuntza batzordean eta Udal LEK batzordean.</p>

UDALEKO KIROL ZERBITZUEN ARDURADUNA	
LAN ESPARRUA	FUNTZIOAK
Instalazioak	LEK programarako udal kirol instalazioak lotu.
Hitzarmena	Udalak LEK Elkarterekin duen hitzarmenaren prestaketa eta jarraipena eramatea.
Diru laguntzak	LEK programan parte hartzen duten kirol elkarten diru laguntzen banaketa.
Hitzaldiak	Hitzaldi eta formazio saioak prestatzen eta bideratzen lagundu.
Batzarrak	LEK koordinatzailearekin koordinazio batzarrak antolatu, gidatu eta agiria jaso.
	LEK Udal batzordeetan parte hartu.
	Herriko kirol batzordea kudeatu, deialdiak egin, agiriak jaso eta banatu.

LEK KOORDINATZAILEA	
LAN ESPARRUA	FUNTZIOAK
<b>Prestaketa lana</b>	Urteko programa eta egutegia zehaztu eta lotu.
	Kirol enpresekin koordinatu, aurrekontua eskatu eta egutegia lotu.
	Kirol elkarteekin koordinatu, baliabideak argitu eta egutegia lotu.
	Erabiliko diren instalazioak eskatu eta egutegia lotu (ikastetxeak, herriko kirol instalazioak).
	Monitoreekin kontaktatu, lan-taldea osatu eta beraien lana zehaztu.
	Ikasle taldeak osatu mailaka ikastetxeko LEK ordezkariarekin batera.
	Aldundiko programan ikasleak inskribatu: taldeka eta bakarkako kirolelan
<b>Koordinazioa</b>	Aste barruko saioen prestaketa, antolaketa eta jarraipena eraman.
	Asteburuko topaketen prestaketa, antolaketa eta jarraipena eraman.
	Eragile guztiekin koordinazioa (monitoreak, LEK saioen arduraduna, ikastetxeko LEK ordezkariak, LEK elkarteko lan taldeko kideak, Izayfer asesoria, kiroldegia, kirol elkarte, enpresa).
	Gurasoekin koordinazioa eta etengabeko komunikazioa (saio eta topaketen inguruko oharra, aldaketak, zalantzak, gertaerak).
	Ikastetxeen eta LEK elkartearen kirol materiala kudeatu eta falta denean hornitu.
<b>Komunikazioa</b>	LEK elkartearen web orria lotu, prestatu eta egunean izan (LEK komunikazio arduradunarekin).
	Sare sozialetara LEK informazio esanguratsua igotzen lagundu (LEK komunikazio arduradunari).
	Whatsapp taldeak osatu, elikatu eta koordinatu (gurasoak, monitoreak).
	LEK saio eta topaketen argazkiak eta bideoak jaso eta aukeratu (udaleko komunikazio arduradunari pasatzeko).
	LEK elkartearen Drive karpeta prestatu, antolatu, osatu eta egunean izan.
<b>Batzarrak</b>	Guraso batzarretan-formazioetan lagundu LEK Elkarteari (ikasturte hasiera eta bukaera).
	Monitoreekin balorazio batzarrak prestatu eta bideratu (iraila-abendua-ekaina).
	Herriko kirol, hezkuntza eta Udal LEK batzordeetan parte hartu (batzordeko hilean behin)
	Udaleko kirol teknikariarekin koordinazio batzarretan parte hartu (hilean behin).
	Udal LEK batzordeko batzarrak prestatzen lagundu LEK Elkarteari.
<b>Balorazioa</b>	Ikasle, monitore, kirol elkarte eta gurasoen balorazioak jaso (batzarrak, Google inprimakia).
	Balorazioak jasotzeko galdetegiak prestatu eta kudeatu (Google inprimakia).
	LEK programaren ebaluazioa eta memoria prestatu (ekainean).
<b>Babes protokoloa</b>	Umeen babes bermatzeko protokoloa zaindu eta gertaeren aurrean hau jarraitu.
	Babes protokoloa eskura izan LEK kortxoan eta LEK web orrialdean.
	Umeen babes protokoloaren inguruan dauden formazioetan eta batzarretan parte hartu.

LEK SAIOEN KOORDINATZAILEA	
LAN ESPARRUA	FUNTZIOAK
<b>Saioak</b>	Saioen aurre prestaketa lanak 15:00-15:45: eguraldia ikusi, antolaketa erreparasatu, saioen erreparaso...
	Monitoreekin saioen eta arduren erreparaso egin eta argibideak eman 15:45-16:10.
	Azken aldaketen berri eman gurasoei (umeak non jaso...) 14:00-15:00
	Saioetan monitore lana egin.
	Bukaeran gertaerak, asistentziak erregistratu eta materiala bere lekuan gorde.
	Gertaera aipagarriak LEK koordinatzaileari komunikatu eta gurasoekin hitz egin.
<b>Topaketak</b>	Asteburuko topaketetan prestatzen eta aurrera eramaten lagundu.
<b>Batzarrak</b>	LEK elkarteak proposatutako formazio eta balorazio saioetan parte hartu.
	LEK elkarteak antolatutako hitzaldietan parte hartu.

LEK MONITORE HEZITZAILEAK	
LAN ESPARRUA	FUNTZIOAK
<b>Saioa</b>	Saioaren aurre prestaketa lanak 15:45-16:10 (materiala, espazioak, jarduerak, ikasleak nola jaso...).
	Desplazamenduetan segurtasun neurriak eta jarraibideak betetzen direla ziurtatu.
	Merienda tartearen antolaketa eta jarraipena eraman.
	Arropa eta motxilak aurretik finkatutako lekuetan uzten direla ziurtatu.
	Saioaren egitura ongi betetzen dela zaindu (hasiera unea, ezagutza eraikitze unea, agurraren unea).
	Saioen jardueren denbora eta egokitasuna zaintzeko ardura.
	Saioaren gertaerak bideratzeko ardura ume, guraso eta LEK koordinatzailearekin.
	Saioen gertaera eta asistentzia erregistratu Drive dokumentuan.
	Behar denean, beste monitoreei argibideak eta laguntza eskaini.
	Erabilitako materiala bere lekuan geratzen dela ziurtatu.
<b>Topaketak</b>	Asteburuko topaketa lanetan parte hartu.
<b>Batzarrak</b>	LEK elkarteak proposatutako formazio eta balorazio saioetan parte hartu.
	LEK elkarteak antolatutako hitzaldietan parte hartu.

Datorren ikasturteko programari dagokionez, aldaketa gutxi eta aurtengoaren antzekoa izango da. Aipatzeko aldaketen artean, alde batetik, Arragua proiektuarekin bat egingo dugula LH 1-2 mailako ikasleekin, uretako jarduera gehiago egongo direla; eta, bestetik, LH 4 mailakoekin herriko kirol taldeekin egingo dituzten saio kopurua 6ra jaitsi dugula (aurtengo balorazioetan oinarrituta). Hona hemen egutegiak eta programak mailaka:

# PROGRAMA 2024-2025



## LH 1 MAILA

Psikomotrizitatea	Txiki-fitness
Igeriketa	Biodantza
Bizikleta	Skate irristaketa
Yoga	Pilota jolasak
Baloi-jolasak	Natura jolasak
Arrauna	Mahai-jokoak
Herri-kirola	Betiko-jolasak



# PROGRAMA 2024-2025



## LH 2 MAILA

Akrobaziak	Txiki-fitness
Igeriketa	Euskal-dantzak
Bizikleta	Patin irristaketa
Adierazpen-jolasak	Pilota-jolasak
Baloi-jolasak	Eskalada
Piragua	Xake
Elkarlan-jolasak	Mundu-jolasak



# PROGRAMA 2024-2025



## LH 3 MAILA

Atletismoa	Saskibaloia
Igeriketa	Futbola
Orientazioa	Hokeia
Skate	Zirkoa
Bigsup	Biodantza
Errugbia	Soka saltoa
Boleibola	Herri kirola



# PROGRAMA 2024-2025



## LH 4 MAILA

Surf	Piragua
Futbola	Boleibola
Atletismoa	Euskal pilota
Igeriketa	Bizikleta
Skate	Xake
Arrauna	



1. Lau-hilabetea			LH 1A taldea		LH 1B taldea	
			Monitoreak:		Monitoreak:	
			Jarduera	Non jaso	Jarduera	Non jaso
URRRIA	1.astea	ira 30	Elkar ezagutzeko jolasak	Ikastolan	Elkar ezagutzeko jolasak	Ikastolan
		2	Elkar ezagutzeko jolasak	Ikastolan	Elkar ezagutzeko jolasak	Ikastolan
	2.astea	7	Skate	Herri Eskolan	Herri-kirolak	Ikastolan
		9	Skate	Herri Eskolan	Herri-kirolak	Ikastolan
	3.astea	14	Skate	Herri Eskolan	Herri-kirolak	Ikastolan
		16	Skate	Herri Eskolan	Herri-kirolak	Ikastolan
	4.astea	21	Herri-kirolak	Ikastolan	Skate	Herri Eskolan
		23	Herri-kirolak	Ikastolan	Skate	Herri Eskolan
	5.astea	28	Herri-kirolak	Ikastolan	Skate	Herri Eskolan
		30	Herri-kirolak	Ikastolan	Skate	Herri Eskolan
AZAROA	1.astea	4	Adierazpena	Herri Esk. IT	Psikomotrizitatea	Herri Eskolan
		6	Txiki-fitness	Herri Esk. IT	Psikomotrizitatea	Herri Eskolan
	2.astea	11	Adierazpena	Herri Esk. IT	Psikomotrizitatea	Herri Eskolan
		13	Txiki-fitness	Herri Esk. IT	Psikomotrizitatea	Herri Eskolan
	3.astea	18	Adierazpena	Herri Esk. IT	Baloi-jolasak	Kiroldegian
		20	Txiki-fitness	Herri Esk. IT	Baloi-jolasak	Kiroldegian
	4.astea	25	Adierazpena	Herri Esk. IT	Baloi-jolasak	Kiroldegian
		27	Txiki-fitness	Herri Esk. IT	Baloi-jolasak	Kiroldegian
ABENDUA	1.astea	2	Baloi-jolasak	Kiroldegian	Adierazpena	Herri Esk. IT
		4	Baloi-jolasak	Kiroldegian	Txiki-fitness	Herri Esk. IT
	2.astea	9	Baloi-jolasak	Kiroldegian	Adierazpena	Herri Esk. IT
		11	Baloi-jolasak	Kiroldegian	Txiki-fitness	Herri Esk. IT
	3.astea	16	Psikomotrizitatea	Herri Eskolan	Adierazpena	Herri Esk. IT
		18	Psikomotrizitatea	Herri Eskolan	Txiki-fitness	Herri Esk. IT
URTARRILA	1.astea	6	Jai eguna		Jai eguna	
		8	Psikomotrizitatea	Herri Eskolan	Txiki-fitness	Herri Esk. IT
	2.astea	13	Psikomotrizitatea	Herri Eskolan	Adierazpena	Herri Esk. IT
		15	Pilota-jolasak	Ikastolan	Bertoko jolasak	Herri Eskolan
	3.astea	20	Pilota-jolasak	Ikastolan	Bertoko jolasak	Herri Eskolan
		22	Pilota-jolasak	Ikastolan	Bertoko jolasak	Herri Eskolan
	4.astea	27	Pilota-jolasak	Ikastolan	Bertoko jolasak	Herri Eskolan
		29	Igeriketa	Trinketen	Yoga	Ikastolan

2. Lau-hilabetea			LH 1A taldea		LH 1B taldea	
			Monitoreak:		Monitoreak:	
			Jarduera	Non jaso	Jarduera	Non jaso
OTSAILA	1.astea	3	Igeriketa	Trinketen	Yoga	Ikastolan
		5	Igeriketa	Trinketen	Yoga	Ikastolan
	2.astea	10	Igeriketa	Trinketen	Mahai-jokoak	Ikastolan
		12	Igeriketa	Trinketen	Mahai-jokoak	Ikastolan
	3.astea	17	Igeriketa	Trinketen	Mahai-jokoak	Ikastolan
		19	Mahai-jokoak	Ikastolan	Igeriketa	Trinketen
	4.astea	24	Mahai-jokoak	Ikastolan	Igeriketa	Trinketen
		26	Mahai-jokoak	Ikastolan	Igeriketa	Trinketen
MARTXOA	1.astea	3	Yoga	Ikastolan	Igeriketa	Trinketen
		5	Jai eguna		Jai eguna	
	2.astea	10	Yoga	Ikastolan	Igeriketa	Trinketen
		12	Yoga	Ikastolan	Igeriketa	Trinketen
	3.astea	17	Bizikleta	Herri Eskolan	Pilota-jolasak	Ikastolan
		19	Bizikleta	Herri Eskolan	Pilota-jolasak	Ikastolan
	4.astea	24	Bizikleta	Herri Eskolan	Pilota-jolasak	Ikastolan
		26	Bizikleta	Herri Eskolan	Pilota-jolasak	Ikastolan
APIRILA	1.astea	mar 31	Bertoko jolasak	Ikastolan	Bizikleta	Herri Eskolan
		2	Bertoko jolasak	Ikastolan	Bizikleta	Herri Eskolan
	2.astea	7	Bertoko jolasak	Ikastolan	Bizikleta	Herri Eskolan
		9	Bertoko jolasak	Ikastolan	Bizikleta	Herri Eskolan
	5.astea	28	Arrauna	Plazan	Naturan jolasak	Plazan
		30	Arrauna	Plazan	Naturan jolasak	Plazan
MAIATZA	1.astea	5	Arrauna	Plazan	Naturan jolasak	Plazan
		7	Arrauna	Plazan	Naturan jolasak	Plazan
	2.astea	12	Naturan jolasak	Plazan	Arrauna	Plazan
		14	Naturan jolasak	Plazan	Arrauna	Plazan
	3.astea	19	Naturan jolasak	Plazan	Arrauna	Plazan
		21	Naturan jolasak	Plazan	Arrauna	Plazan
	4.astea	26	Hondartzan jolasak	Plazan	Hondartzan jolasak	Plazan
		28	Hondartzan jolasak	Plazan	Hondartzan jolasak	Plazan



1. Lau-hilabetea			LH 2A taldea		LH 2B taldea	
			Monitoreak:		Monitoreak:	
			Jarduera	Non jaso	Jarduera	Non jaso
URRRIA	1.astea	ira 30	Elkar ezagutzeko jolasak	Herri Eskolan	Elkar ezagutzeko jolasak	Herri Eskolan
		2	Elkar ezagutzeko jolasak	Herri Eskolan	Elkar ezagutzeko jolasak	Herri Eskolan
	2.astea	7	Eskalada	Ikastolan	Baloi-jolasak	Herri Esk. LA
		9	Eskalada	Ikastolan	Baloi-jolasak	Herri Esk. LA
	3.astea	14	Eskalada	Ikastolan	Baloi-jolasak	Herri Esk. LA
		16	Eskalada	Ikastolan	Baloi-jolasak	Herri Esk. LA
	4.astea	21	Baloi-jolasak	Herri Esk. LA	Eskalada	Ikastolan
		23	Baloi-jolasak	Herri Esk. LA	Eskalada	Ikastolan
	5.astea	28	Baloi-jolasak	Herri Esk. LA	Eskalada	Ikastolan
		30	Baloi-jolasak	Herri Esk. LA	Eskalada	Ikastolan
AZAROA	1.astea	4	Patinak	Ikastolan	Munduko jolasak	Herri Eskolan
		6	Patinak	Ikastolan	Munduko jolasak	Herri Eskolan
	2.astea	11	Patinak	Ikastolan	Munduko jolasak	Herri Eskolan
		13	Patinak	Ikastolan	Munduko jolasak	Herri Eskolan
	3.astea	18	Munduko jolasak	Herri Eskolan	Patinak	Ikastolan
		20	Munduko jolasak	Herri Eskolan	Patinak	Ikastolan
	4.astea	25	Munduko jolasak	Herri Eskolan	Patinak	Ikastolan
27		Munduko jolasak	Herri Eskolan	Patinak	Ikastolan	
ABENDUA	1.astea	2	Igeriketa	Trinketen	Xake	Ikastolan
		4	Igeriketa	Trinketen	Xake	Ikastolan
	2.astea	9	Igeriketa	Trinketen	Xake	Ikastolan
		11	Igeriketa	Trinketen	Euskal dantza	Herri Eskolan
	3.astea	16	Igeriketa	Trinketen	Euskal dantza	Herri Eskolan
		18	Igeriketa	Trinketen	Euskal dantza	Herri Eskolan
URTARRILA	1.astea	6	Jai eguna		Jai eguna	
		8	Xake	Ikastolan	Igeriketa	Trinketen
	2.astea	13	Xake	Ikastolan	Igeriketa	Trinketen
		15	Xake	Ikastolan	Igeriketa	Trinketen
	3.astea	20	Adierazpena	Herri Eskol. IT	Igeriketa	Trinketen
		22	Txiki-fitness	Herri Eskol. IT	Igeriketa	Trinketen
	4.astea	27	Adierazpena	Herri Eskol. IT	Igeriketa	Trinketen
		29	Txiki-fitness	Herri Eskol. IT	Pilota-jolasak	Kiroldegian

2. Lau-hilabetea			LH 2A taldea		LH 2B taldea	
			Monitoreak:		Monitoreak:	
			Jarduera	Non jaso	Jarduera	Non jaso
OTSAILA	1.astea	3	Adierazpena	Herri Eskol. IT	Pilota-jolasak	Kiroldegian
		5	<del>Txiki-fitness</del>	Herri Eskol. IT	Pilota-jolasak	Kiroldegian
	2.astea	10	Adierazpena	Herri Eskol. IT	Pilota-jolasak	Kiroldegian
		12	<del>Txiki-fitness</del>	Herri Eskol. IT	<del>Txiki-fitness</del>	Herri Eskol. IT
	3.astea	17	Pilota-jolasak	Kiroldegian	Adierazpena	Herri Eskol. IT
		19	Pilota-jolasak	Kiroldegian	<del>Txiki-fitness</del>	Herri Eskol. IT
	4.astea	24	Pilota-jolasak	Kiroldegian	Adierazpena	Herri Eskol. IT
		26	Pilota-jolasak	Kiroldegian	<del>Txiki-fitness</del>	Herri Eskol. IT
MARTXOA	1.astea	3	Euskal dantzak	Herri Eskolan	Adierazpena	Herri Eskol. IT
		5	Jai eguna		Jai eguna	
	2.astea	10	Euskal dantzak	Herri Eskolan	Adierazpena	Herri Eskol. IT
		12	Euskal dantzak	Herri Eskolan	<del>Txiki-fitness</del>	Herri Eskol. IT
	3.astea	17	Akrobaziak	Ikastolan	Elkarlan jolasak	Herri Eskolan
		19	Akrobaziak	Ikastolan	Elkarlan jolasak	Herri Eskolan
	4.astea	24	Akrobaziak	Ikastolan	Elkarlan jolasak	Herri Eskolan
		26	Akrobaziak	Ikastolan	Elkarlan jolasak	Herri Eskolan
APIRILA	1.astea	<del>mar 31</del>	Elkarlan jolasak	Herri Eskolan	Akrobaziak	Ikastolan
		2	Elkarlan jolasak	Herri Eskolan	Akrobaziak	Ikastolan
	2.astea	7	Elkarlan jolasak	Herri Eskolan	Akrobaziak	Ikastolan
		9	Elkarlan jolasak	Herri Eskolan	Akrobaziak	Ikastolan
	5.astea	28	Piragua	San Pedropen	Bizikleta	Herri Eskolan
30		Piragua	San Pedropen	Bizikleta	Herri Eskolan	
MAIATZA	1.astea	5	Piragua	San Pedropen	Bizikleta	Herri Eskolan
		7	Piragua	San Pedropen	Bizikleta	Herri Eskolan
	2.astea	12	Bizikleta	Herri Eskolan	Piragua	San Pedropen
		14	Bizikleta	Herri Eskolan	Piragua	San Pedropen
	3.astea	19	Bizikleta	Herri Eskolan	Piragua	San Pedropen
		21	Bizikleta	Herri Eskolan	Piragua	San Pedropen
	4.astea	26	Hondartzan jolasak	Plazan	Hondartzan jolasak	Plazan
28		Hondartzan jolasak	Plazan	Hondartzan jolasak	Plazan	


1. Lau-hilabetea			LH 3A taldea		LH 3B taldea	
			Monitoreak:		Monitoreak:	
			Jarduera	Non jaso	Jarduera	Non jaso
URRRIA	1.astea	1	Elkar ezagutzeko jolasak	Ikastolan	Elkar ezagutzeko jolasak	Ikastolan
		3	Skate	Ikastolan	Atletismoa	Herri Eskola IT
	2.astea	8	Skate	Ikastolan	Atletismoa	Herri Eskola IT
		10	Skate	Ikastolan	Atletismoa	Herri Eskola IT
	3.astea	15	Skate	Ikastolan	Atletismoa	Herri Eskola IT
		17	Atletismoa	Herri Eskola IT	Skate	Ikastolan
	4.astea	22	Atletismoa	Herri Eskola IT	Skate	Ikastolan
		24	Atletismoa	Herri Eskola IT	Skate	Ikastolan
	5.astea	29	Atletismoa	Herri Eskola IT	Skate	Ikastolan
		31	Futbola	Herri Eskola LA	Soka saltoa	Ikastolan
AZAROA	1.astea	5	Futbola	Herri Eskola LA	Soka saltoa	Ikastolan
		7	Futbola	Herri Eskola LA	Soka saltoa	Ikastolan
	2.astea	12	Futbola	Herri Eskola LA	Soka saltoa	Ikastolan
		14	Soka saltoa	Ikastolan	Futbola	Herri Eskola LA
	3.astea	19	Soka saltoa	Ikastolan	Futbola	Herri Eskola LA
		21	Soka saltoa	Ikastolan	Futbola	Herri Eskola LA
	4.astea	26	Soka saltoa	Ikastolan	Futbola	Herri Eskola LA
		28	<del>Biodantza</del>	Ikastolan	Saskibaloia	Ikastolan
ABENDUA	1.astea	3	<del>Biodantza</del>	Ikastolan	Saskibaloia	Ikastolan
		5	<del>Biodantza</del>	Ikastolan	Saskibaloia	Ikastolan
	2.astea	10	<del>Biodantza</del>	Ikastolan	Saskibaloia	Ikastolan
		12	Saskibaloia	Ikastolan	<del>Biodantza</del>	Ikastolan
	3.astea	17	Saskibaloia	Ikastolan	<del>Biodantza</del>	Ikastolan
		19	Saskibaloia	Ikastolan	<del>Biodantza</del>	Ikastolan
URTARRILA	1.astea	7	Saskibaloia	Ikastolan	<del>Biodantza</del>	Ikastolan
		9	Herri kirola	Herri Eskolan	Boleibola	Kiroldegian
	2.astea	14	Herri kirola	Herri Eskolan	Boleibola	Kiroldegian
		16	Herri kirola	Herri Eskolan	Boleibola	Kiroldegian
	3.astea	21	Herri kirola	Herri Eskolan	Boleibola	Kiroldegian
		23	Boleibola	Kiroldegian	Herri kirola	Herri Eskolan
	4.astea	28	Boleibola	Kiroldegian	Herri kirola	Herri Eskolan
30		Boleibola	Kiroldegian	Herri kirola	Herri Eskolan	

2. Lau-hilabetea			LH 3A taldea		LH 3B taldea	
			Monitoreak:		Monitoreak:	
			Jarduera	Non jaso	Jarduera	Non jaso
OTSAILA	1.astea	4	Boleibola	Kiroldegian	Herri kirola	Herri Eskolan
		6	Igeriketa	Trinketen	<del>Hokeia</del>	Herri Eskola IT
	2.astea	11	Igeriketa	Trinketen	<del>Hokeia</del>	Herri Eskola IT
		13	Igeriketa	Trinketen	<del>Hokeia</del>	Herri Eskola IT
	3.astea	18	Igeriketa	Trinketen	<del>Hokeia</del>	Herri Eskola IT
		20	<del>Hokeia</del>	Herri Eskola IT	Igeriketa	Trinketen
4.astea	25	<del>Hokeia</del>	Herri Eskola IT	Igeriketa	Trinketen	
	27	<del>Hokeia</del>	Herri Eskola IT	Igeriketa	Trinketen	
MARTXOA	1.astea	4	Jai eguna		Jai eguna	
		6	Jai eguna		Jai eguna	
	2.astea	11	<del>Hokeia</del>	Herri Eskola IT	Igeriketa	Trinketen
		13	Zirkoa	Ikastolan	Errugbia	Herri Eskolan
	3.astea	18	Zirkoa	Ikastolan	Errugbia	Herri Eskolan
		20	Zirkoa	Ikastolan	Errugbia	Herri Eskolan
4.astea	25	Zirkoa	Ikastolan	Errugbia	Herri Eskolan	
	27	Errugbia	Herri Eskolan	Zirkoa	Ikastolan	
APIRILA	1.astea	1	Errugbia	Herri Eskolan	Zirkoa	Ikastolan
		3	Errugbia	Herri Eskolan	Zirkoa	Ikastolan
	2.astea	8	Errugbia	Herri Eskolan	Zirkoa	Ikastolan
		10	Orientazioa	Plazan	<del>Bigsup</del>	Plazan
	5.astea	29	Orientazioa	Plazan	<del>Bigsup</del>	Plazan
<del>mai 1</del>		Jai eguna		Jai eguna		
MAIATZA	1.astea	6	Orientazioa	Plazan	<del>Bigsup</del>	Plazan
		8	Orientazioa	Plazan	<del>Bigsup</del>	Plazan
	2.astea	13	<del>Bigsup</del>	Plazan	Orientazioa	Plazan
		15	<del>Bigsup</del>	Plazan	Orientazioa	Plazan
	3.astea	20	<del>Bigsup</del>	Plazan	Orientazioa	Plazan
		22	<del>Bigsup</del>	Plazan	Orientazioa	Plazan
	4.astea	27	Hondartza jolasak	Plazan	Hondartza jolasak	Plazan
29		Hondartza jolasak	Plazan	Hondartza jolasak	Plazan	

1. Lau-hilabetea			LH 4A taldea		LH 4B taldea	
			Monitoreak:		Monitoreak:	
			Jarduera	Non jaso	Jarduera	Non jaso
URRRIA	1.astea	1	Elkar ezagutzeko jolasak	Herri Eskolan	Elkar ezagutzeko jolasak	Herri Eskolan
		3	Surf (Leaktibai)	Karraspion	Piragua (Urtantak)	San Pedroen
	2.astea	8	Surf (Leaktibai)	Karraspion	Piragua (Urtantak)	San Pedroen
		10	Surf (Leaktibai)	Karraspion	Piragua (Urtantak)	San Pedroen
	3.astea	15	Piragua (Urtantak)	San Pedroen	Surf (Leaktibai)	Karraspion
		17	Piragua (Urtantak)	San Pedroen	Surf (Leaktibai)	Karraspion
	4.astea	22	Piragua (Urtantak)	San Pedroen	Surf (Leaktibai)	Karraspion
		24	Atletismoa (Tximista)	Larrotegin	Boleibola (Marierrota)	Kiroldegian
5.astea	29	Atletismoa (Tximista)	Larrotegin	Boleibola (Marierrota)	Kiroldegian	
	31	Atletismoa (Tximista)	Larrotegin	Boleibola (Marierrota)	Kiroldegian	
AZAROA	1.astea	5	Atletismoa (Tximista)	Larrotegin	Boleibola (Marierrota)	Kiroldegian
		7	Atletismoa (Tximista)	Larrotegin	Boleibola (Marierrota)	Kiroldegian
	2.astea	12	Atletismoa (Tximista)	Larrotegin	Boleibola (Marierrota)	Kiroldegian
		14	Boleibola (Marierrota)	Kiroldegian	Atletismoa (Tximista)	Larrotegin
	3.astea	19	Boleibola (Marierrota)	Kiroldegian	Atletismoa (Tximista)	Larrotegin
		21	Boleibola (Marierrota)	Kiroldegian	Atletismoa (Tximista)	Larrotegin
	4.astea	26	Boleibola (Marierrota)	Kiroldegian	Atletismoa (Tximista)	Larrotegin
		28	Boleibola (Marierrota)	Kiroldegian	Atletismoa (Tximista)	Larrotegin
ABENDUA	1.astea	3	Boleibola (Marierrota)	Kiroldegian	Atletismoa (Tximista)	Larrotegin
		5	Igeriketa (Amandarri)	Trinketen	Euskal pilota (Akarregi)	Kiroldegian
	2.astea	10	Igeriketa (Amandarri)	Trinketen	Euskal pilota (Akarregi)	Kiroldegian
		12	Igeriketa (Amandarri)	Trinketen	Euskal pilota (Akarregi)	Kiroldegian
	3.astea	17	Igeriketa (Amandarri)	Trinketen	Euskal pilota (Akarregi)	Kiroldegian
19		Igeriketa (Amandarri)	Trinketen	Euskal pilota (Akarregi)	Kiroldegian	
URTARRILA	1.astea	7	Igeriketa (Amandarri)	Trinketen	Euskal pilota (Akarregi)	Kiroldegian
		9	Euskal pilota (Akarregi)	Kiroldegian	Igeriketa (Amandarri)	Trinketen
	2.astea	14	Euskal pilota (Akarregi)	Kiroldegian	Igeriketa (Amandarri)	Trinketen
		16	Euskal pilota (Akarregi)	Kiroldegian	Igeriketa (Amandarri)	Trinketen
	3.astea	21	Euskal pilota (Akarregi)	Kiroldegian	Igeriketa (Amandarri)	Trinketen
		23	Euskal pilota (Akarregi)	Kiroldegian	Igeriketa (Amandarri)	Trinketen
4.astea	28	Euskal pilota (Akarregi)	Kiroldegian	Igeriketa (Amandarri)	Trinketen	
	30	Adierazpena (Arragua)	Herri Eskola IT	Xake (Jokin Erdozia)	Kultur etxean	

2. Lau-hilabetea			LH 4A taldea		LH 4B taldea	
			Monitoreak:		Monitoreak:	
			Jarduera	Non jaso	Jarduera	Non jaso
OTSAILA	1.astea	4	Adierazpena (Arragua)	Herri Eskola IT	Xake (Jokin Erdozia)	Kultur etxean
		6	Adierazpena (Arragua)	Herri Eskola IT	Xake (Jokin Erdozia)	Kultur etxean
	2.astea	11	Xake (Jokin Erdozia)	Kultur etxean	Adierazpena (Arragua)	Herri Eskola IT
		13	Xake (Jokin Erdozia)	Kultur etxean	Adierazpena (Arragua)	Herri Eskola IT
	3.astea	18	Xake (Jokin Erdozia)	Kultur etxean	Adierazpena (Arragua)	Herri Eskola IT
		20	Futbola (LFT)	Larrotegin	Funky	Kiroldegian
	4.astea	25	Futbola (LFT)	Larrotegin	Funky	Kiroldegian
		27	Futbola (LFT)	Larrotegin	Funky	Kiroldegian
MARTXOA	1.astea	4	Jai eguna		Jai eguna	
		6	Jai eguna		Jai eguna	
	2.astea	11	Futbola (LFT)	Larrotegin	Skate (Ranpabako)	Herri Eskolan
		13	Futbola (LFT)	Larrotegin	Skate (Ranpabako)	Herri Eskolan
	3.astea	18	Futbola (LFT)	Larrotegin	Skate (Ranpabako)	Herri Eskolan
		20	Funky	Kiroldegian	Futbola (LFT)	Larrotegin
	4.astea	25	Funky	Kiroldegian	Futbola (LFT)	Larrotegin
		27	Funky	Kiroldegian	Futbola (LFT)	Larrotegin
APIRILA	1.astea	1	Skate (Ranpabako)	Herri Eskolan	Futbola (LFT)	Larrotegin
		3	Skate (Ranpabako)	Herri Eskolan	Futbola (LFT)	Larrotegin
	2.astea	8	Skate (Ranpabako)	Herri Eskolan	Futbola (LFT)	Larrotegin
		10	Arrauna (Lekittarra)	Plazan	Bizikleta (Garraitz)	Herri Eskolan
	5.astea	29	Arrauna (Lekittarra)	Plazan	Bizikleta (Garraitz)	Herri Eskolan
		mai 1	Jai eguna		Jai eguna	
MAIATZA	1.astea	6	Arrauna (Lekittarra)	Plazan	Bizikleta (Garraitz)	Herri Eskolan
		8	Arrauna (Lekittarra)	Plazan	Bizikleta (Garraitz)	Herri Eskolan
	2.astea	13	Arrauna (Lekittarra)	Plazan	Bizikleta (Garraitz)	Herri Eskolan
		15	Bizikleta (Garraitz)	Herri Eskolan	Arrauna (Lekittarra)	Plazan
	3.astea	20	Bizikleta (Garraitz)	Herri Eskolan	Arrauna (Lekittarra)	Plazan
		22	Bizikleta (Garraitz)	Herri Eskolan	Arrauna (Lekittarra)	Plazan
	4.astea	27	Bizikleta (Garraitz)	Herri Eskolan	Arrauna (Lekittarra)	Plazan
		29	Bizikleta (Garraitz)	Herri Eskolan	Arrauna (Lekittarra)	Plazan

Aurrekontuari dagokionez, iazko antzekoa izango bada ere eragin handia izango du LEK koordinatzaile lana udaleko kirol zerbitzuko langile batek egin ala ez. Horrela bada, udalaren ekarpena gehiago izango litzateke eta giza baliabideen gastua gutxiago. Hona hemen laburpen kuadroa:

 <h1 style="text-align: center;">GASTUAK</h1>		
KONTZEPTUA	AZALPENA	ZENBATEKOA
Giza-baliabideak	LEK koordinatzailea eta monitoreak	46.800,00 €
Ordu extrak	Monitore zein koordinatzaileak ordutegitik kanpo egindako jarduna (topaketak, prestaketak...)	5.000,00 €
Izaifer asesoria	Hileko nominak kudeatzeko lana (altak, bajak, nominak...)	1.800,00 €
Allianz segurua	LEK elkarteko aseguruia	750,00 €
Aldundia	Aldundiko elkarte kuota	300,00 €
Kirol jarduera bereziak	Kirol enprekin antolatutako jarduerak	6.000,00 €
Autobusak	Asteburuko kirol topaketetara joateko	2.000,00 €
Kirol topaketak	Herrian egiten diren topaketa gastuak (luntxak, edaria, sariak...)	1.500,00 €
Materiala	Kirol materiala jardueretarako	800,00 €
Ekipazioa	Ume eta monitore LEK jantziak	600,00 €
Bankua	Mantenua eta komisioak	350,00 €
<b>GUZTIRA:</b>	<b>65.900,00 €</b>	
<h1 style="text-align: center;">SARRERAK</h1>		
KONTZEPTUA	AZALPENA	ZENBATEKOA
Familien kuota	Urteko kuota 180€ (160 ume aurreikusten dira)	28.800,00 €
Babesleak	Caixa, Eika, Danobat	4.000,00 €
Aldundia	Aldundiko eskola-kirol programan parte hartzearen	7.400,00 €
Udala	LEK elkartea eta Udalaren hitzarmena	25.700,00 €
<b>SARRERAK:</b>	<b>65.900,00 €</b>	

Datorren ikasturtearen antolaketa eta informazioaz bukatzeko, Udal LEK Batzordeak proiektuaren inguruan landu beharko dituen gaien errebasoa aurkeztuko da lehenik; eta, ondoren, irailean izena emateko argibideak aipatuko dira.

Azken bi urteetan LEK proiektuak erakutsi du herriko gaztetxoek hezkuntza eta aisialdirako tresna aberatsa dela. Pixkanaka bada ere, badao herrian bere lekua hartzen eta gainera proposamen berriak agertzen doaz. Uda honetan Herri Udalekuak antolatu dira LEK Elkartearen egitura aprobetxatuz eta antzeko izaera oinarri hartuta. Beraz, oraindik badago zer egin eta zer antolatu eskola kirola praktikatzeko adina duten ume eta gazteekin (6-16 urte).

Hona hemen hurrengo ikasturtean landu beharko diren gaien zerrenda:

- Batzordeen baliagarritasuna begiratu. Informazioa partekatzea bakarrik ez, gaien inguruan hausnarketa eta proposamenak lantzeko metodologia bilatu behar da.
- Udaleko kirol zerbitzuak (kiroldegiak) adin horietako umei eta HH mailakoei egiten zaien eskaintza birplanteatzea (ballet, dantza kreatiboa, txiki ritmoa, jazz funky, igeriketa).
- LEK proiektua HH 4-5 mailetan ere eskaintzea? Eta zer egin LH 5-6 mailakoekin? Agian, 4-16 urte bitarteko ume eta gazteen kirol ibilbidea zehaztu beharko zen.
- LEK topaketak eta asteburuetan udaletik auzolanean antolatzen den aisialdi eskaintzak ere hausnarketa eta koherentzia bat behar dute.



**ARGIBIDEAK 2024-2025**

- **Izena emateko epea:** irailak 9-20
- **Nola eman izena:** Ikastetxean bertan, LEK web orritik ([lekeitiokoeskolakirola.org](http://lekeitiokoeskolakirola.org))
- **Aurkezpen batzarra:** irailak 26
- **Hasiera eguna:** irailak 30
- **Saio egunak:**
  - \*LH 1-2 astelehena-asteazkena
  - \*LH 3-4 asteartea-osteguna
- **Ordutegia:** 16:15-17:45
- **Urteko kuota:** 180€